

Kontzeju

2016ko Uztaila | 283. zbk

www.ohotzi.eus



hietzi.ohotzi



@hietzi.ohotzi




hietzi.ohotzi



hietzi.ohotzi

DELIK



GARRAIO PUBLIKOAREN GARAPENA OÑATIN

Zaldi-kotxeetatik motordun ibilgailuetara igaro ginenekoa





Omnibusa Oñatira iritsi zen garaikoa

Domekan, uztailaren 10ean, San Kristobal eguna ospatuko da, gidarien zaindariaren jaia. Eta horren harira, une egokia iruditu zaigu, denboran atzera begiratu eta Oñatiko historian zehar garraioak izan duen bilakaera aztertzeko. Gaur egun (2016ko erroldako datua) 7.386 ibilgailu daude matrikulatuta Oñatin, baina orain dela 70 edo 80 urte oso bestelakoa zen egoera. Lehenengo auto motordunak 1910eko hamarkadan iritsi ziren Oñatira, eta aurreneko **Omnibusak** —Latineko *omnis* hitzaren datiboa (denentzat), garraiorako erabiltzen ziren lau gupil edo gehiagoko ibilgailuak izendatzeko erabiltzen zena— 1920ko hamarkadan.



La Oñatitarra garraio enpresaren lehenengoetako autobusa, 1925 ingurukoa

Baina motordun ibilgailuak iritsi aurretik ere izan ziren, jakina, bestelako garraiobide batzuk. Hala, karretero ofizioak, adibidez, XX. gizaldi erdirarte iraun zuen bizirik. Roman Agirre izan zen horietako bat; zaldi handi batek tiratuta, plataforma luze eta zabal bat eramaten zuen lau gurpilekin, herri barruko merkantzia-garraioa egiteko.

Pertsonak eramateko berriz, zaldi-kotxea izan zen ohiko garraiobidea XIX. gizaldian zehar. Zaldiz tiratutako gurdi edo diligentziak izaten ziren, hamar bat lagunentzako lekua-rekin, ondoko argazkietan ikusten den moduan.

Oñatin ere baziren kotxero lanetan aritzen zirenak. Udal artxibozain Izar Salaberrik eskuratu digun informazioaren arabera, 1880an bost herritarrek (*Cándido Zulueta, Martín Olalde, Miguel M^a Ayesta, Luis Urcelay* eta *Franciso Uriarte*) ordaintzen zuten *Matrícula Industrial* izeneko tasa, zaldi-kotxeak edukitzeagatik.

Bestalde, Juan Zubiaren *Memorias de aquel Oñati* liburuan esaten denez, Andres Iñurritegi kotxeruak zeukan Oñati eta Brinkola arteko zerbitzuaren eskusiba, eta oso ezaguna omen zen bailara osoan. Udal artxiboko 1899ko agirietan ere azaltzen da Iñurritegi jauna, zaldi-kotxe baten eta bi zaldiren jabe.

Oñatiko zaharrenek gogoan dute oraindik, Unibertsitate etorbidean, gaur egun Garoa aretoa dagoen lekuan, karrozak eta zaldiak gordetzeko lokal haundi bat zegoela, eta orduko ume gehienak han inguruan



Zaldi-kotxeen irudiak Arantzazuko santutegian eta Oñatiko plazan, 1919an
(Argk.: Martín Ricardo. Kutxa Fototeka)



KOTXERUAK 1880EAN BOST HERRITARREK EMATEN ZUTEN ZALDI-KOTXE ZERBITZUA OÑATIN

*Iturria: Oñatiko
udal artxiboa*

ibiltzen zirela kuxkuxean.

Oñati eta Elorrio arteko zerbitzua Gregorio kotxeruak ematen zuen, Juan Zubiaren arabera. Zaldi ederrak zituen, kaskabilo dotorez apainduak, eta Kale Barrian zituen, gaur egun Etxeberria jatetxea dagoen lekuan, administrazioa eta kotxerak. Trena inauguratu zenean utzi zion diligentzia erabiltzeari.

Oñati eta Arantzazu arteko

zerbitzua egiteko idi pareak jartzen zuten zaldien aurretik, Urtiagainera arteko aldapa gogorra igotzeko. Beherakoan berriz, *plantxia* izeneko burdinazko pieza bar jartzen zuten galga moduan atzeko gurpilen ardatzean. Plantxiori gori-gori iristen zen behera, eta Portalekura heldu bezain azkar pintza batzuekin jaso eta bertako iturri-askara botatzen zuten.

(hurrengo orrira)

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
sire barrio 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
ARROZTEGIA
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL./ FAXA: 943 78 14 59 | lmabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

LEHENENGO OMNIBUSAK

XX. gizaldiarekin batera abere trakziodun ibilgailuek motordunei utziko diete lekua. Euskal Herrira ere berandu gabe iritsi zen asmakizun berria. Hala, 1901 urterako *Sociedad Vitoriana* konpainiak lurrunez funtzionatzen zuten hiru 'omnibus-automobil' zituen, Gasteiz-Lemoa bidea egiten zutenak, 20 bidaiarientzako lekuarekin.

Asmakuntza berriak zeuzkan abantailak ikusita, berehala hasi ziren enpresa berriak sortzen Euskal Herri osoan zehar.

Oñatira etorrita, *La Oñatiarra* izan zen aitzindaria. Ezin izan dugu zehaztu zein urtetan sortu zen, baina *Lukasenian* (udaletxearen atzean) izan zuen administrazioa, eta Oñatitik Brinkolara eta Arantzazurako garraio zerbitzua eskani zuen urte askoan.

Hasieran zazpi bazkide izan baziren ere, 1920. hamarkada bukaeran Vicente eta Hipolito Madina anaien eta Antolin Aranaren esku geratu zen *La Oñatiarra*. Une horretan izena aldatu eta *Sucesores de Arana y Compañia* izatera pasa zen. Urte batzuk beranduago, Vicenteren koinatua zen Floren Elorzari utzi zion bere parte Aranak, eta berriz ere *La Oñatiarra* izena hartu zuen. Tamalez, Hipolito gazterik hil zen zoriogaiztoko istripu baten ondorioz. Handik aurrera Vicentek hartu zuen zuzendaritza, harik eta Jabier semeak erreleboa hartu zion arte.

Esan bezala, Oñati-Brinkola eta Oñati-Arantzazu zerbitzuak egiten zituen *La Oñatiarra*-k. "Goizeko 8etan irteten zen *diarixua* Oñatitik Berinkolara" gogoratzen du Jabier Madinak. "Bidaiariak utzi eta Irundik etortzen zen *Tren Correo*-ari itxoiten genion. Hamaikak aldera iristen zen, eta hango gutunak eta paketeak jasota, buelta Oñatira, eta eguerdiko 12etarako irteten zen autobusa Arantzazura, fraideentzako, baserritarrendako eta bertako



▲
Bidaiarientzako
lehen
autobusak
Oñatko plazan
1925ean
(Argk.: Marin,
Pascual. Kutxa
Fototeka)



Oñatiarren autobusa ospital zaharraren aurrean



Jai egun berezietan flota osoa (8 autobus) atera behar izaten zuten La Oñatiarrak jendea Arantzazura eramateko. Kamioiak ere egokitzen zituzten jendea garraiatzeko



Ezkerrean, Oñatiarreko autobusa Matingoan zeukan garajejan. Eskuman, Oñatiarreko buruak, langile eta laguntzaile batzuekin: Zutik, Angel López, Luis Urmeneta, Juah 'Pelotas', Lorenzo Letamendi, Vicente Madina eta Floren Elorza. Makurtuta, Alberto Kortabarria eta Kandido Bikuña.

ostatuetarako merkantzia autobusaren gainaldean jarrita". Angel Mikiluak egiten zituen gero Arantzazuko postari lanak.

Arratsaldeko 4retan jeisten zen autobusa Arantzazutik eta berriro Brinkolara; arratsaldeko Korreoan zetorrena batu eta buelta Oñatira, eta eguna amaitzeko berriro Arantzazura. Egunero bi buelta ematen zituen Oñatiarraneko diarixuak Brinkolara eta Arantzazura.

1969ko Gabon zahar egunean egin zuen azkenengo bidaia Brinkolara Oñatiarreko autobusak. Arantzazuko eguneroko zerbitzuak urte batzuk gehiago iraun zuen.

ZERBITZU BEREZIA ARAOTZERA

Hileroko lehen ostiraletako feria egunean autobus zerbitzu berezia egoten zen Araotzera. "Egunaren akaberan, iluntzeko 8ak aldera, Txarriduna parean egiten genuen geldialdi nagusia" gogoratzen du Jabierrek; "base-rritarrak presa barik ibiltzen ziren, eta gu kanpoan zain, harik eta kontuak egin arte".

Esan dugu *Lukassenian* izan zuela bulegoa *La Oñatiarrak* hasieran, baina gero parroikia

aurrean dagoen Astorkiza etxera aldatu zen, eta *Elizaurre* izeneko lokalean egon zen luza-roan. Autobusak ere bertatik abiatzen ziren, gaur egun taxi geltokia dagoen lekutik.

Garai hartan automobil gutxi zegoen artean, eta asko erabiltzen zen autobusa. "Uda partean, batez ere, eta egun berezietan, jende asko etortzen zen Arantzazura, eta askotan flota osoa (8 autobus) atera behar izaten genituen" gogoratzen du Jabierrek. "Kamioiak ere egokitzen genituen jendea eramateko".

Arrasateko San Juanetan eta, batez ere, Bergarako Pazkoetan zerbitzu bereziak egin behar izaten zituzten Oñatiarreko autobusek. "Lantegietan jai hartzen zuten arratsaldean eta jende asko joaten zen pilota partiduak ikustera eta dantza egitera" dio Jabierrek; "tren zerbitzu berezia egoten zen, baina nahikoa ez, eta egun osoan ibiltzen ginen hara eta hona jende-karriuan".

MERKANTZIEN GARRAIOA

Bidaia-iek ez ezik, herriko eta inguruko lantegietako merkan-tzien garraioan ere lan egin zuen

OÑATIARRAREN DIARIXUAK OÑATIARREKO AUTOBUSEK EGUNERO BI JOAN-ETORRI EGITEN ZUTEN OÑATITIK BRINKOLARA ETA ARANTZAZURA

MERKANTZIEN GARRAIOA LA MANGAKO (MURTZIA) LEHEN HOTELA ERAIKITZEKO OÑATIARREKO KAMIOIETAN ERAMAN ZITUZTEN ULMAKO ALDAMIOIAK

Oñatiarrak. "Hasieran kamio-neta txiki bat erabiltzen zen merkantziak Brinkolara eraman edo handik ekartzeko", azaldu digu Alberto Kortabarriak, hainbat urtez Oñatiarreko txoferra izandakoak. 1960tik aurrera Espainia danera joaten hasi ziren beraien kamioiekin. "*La Manga del Mar Menor*-eko (Murtzia) lehenengo hotela eraiki zutenean, Fernando Madinak eta biok eraman genituen Ulmako aldamioak" gogoratzen du Albertok.

Merkantziak garraiatzeaz gain, Renfek inguru honetan zeukan delegazio bakarra zen *La Oñatiarra*; beraz, inguruko enpresa edo erreka-distek Brinkolara paketeren bat eraman behar zutenean, Oñatiarraren bulegoan fakturatzen zuten.

OÑATRANS

Ehundik gora urteko ibilbidea egin ondoren, garraio enpresa sendoa dugu gaur egun *La Oñatiarra* (*Oñatrans* izena du gaur egun). Logistika arazoak tarteko Langraiz Okan (Nanclares de la Oca) du egoitza, eta 40 kamioiekin Espainia osoan, Portugalen eta Frantziako hegoaldean lan egiten du.

ETXEZ ETXEKO

laguntza zerbitzua EULEN

Taldeari esleitu dio Udalak

Azken bost urteetan bezala, *Eulen Servicios Socio-Sanitarios S.A.* enpresak eskainiko du Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua Oñatin. Bera izan da udalak egindako deialdi publikora aurkeztu ziren sei enpresen artean puntuaziorik altuena lortu duena. Kontratu berria bi urterako izango da, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Ezintasun fisiko, psikiko edo sozial baten ondorioz, eguneroko lanak (etxeko garbiketak, otorduak prestatzea, higiene pertsonala...) egiteko zailtasunak dituzten pertsonen beraien etxean eskaintzen zaien laguntza da Etxez Etxeko zerbitzua. Helburua da, azken batean, pertsona horiek beraien etxean ahalik eta luzaroen bizitzen jarraitu ahal izateko behar duten laguntza ematea.

Gaur egun Oñatiko 68 etxetan jasotzen dute laguntza mota hau, eta gizarte arloan udalak eskaintzen duen zerbitzurik inportanteenetakoa da. Urtean 600.000 euroko aurrekontua du etxez etxeko laguntzak.

ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Arrazoi ezberdinak tarteko (fisiko, psikiko edo sozialak) eguneroko bizitzako premiazko lanak egiteko zailtasuna duten pertsonen eska dezakete etxez etxeko laguntza zerbitzua. Oñatin errolatuta egon behar du eskatzaileak.



Agustina Lizarralderi egunero joaten zaio etxez-etxeko langilea, goizez ordu eta erdi, eta arratsalde ordu bat.

PERTSONA NAGUSIAK AHALIK ETA LUZAROEN BERAIE
ETXEAN BIZITZEN JARRAITU AHAL IZATEA DA ETXEZ ETXEKO
LAGUNTZA ZERBITZUAREN HELBURUA. EGUNEROKO LANAK
(ETXEKO GARBIKETAK, OTORDUAK PRESTATZEA, HIGIENE
PERTSONALA...) EGITEKO ZAILTASUNA DUTEN PERTSONEI
BERAIE ETXEAN ESKAINTZEN ZAIEN LAGUNTZA DA.

Gaur egun
Oñatiko 68
etxetan
jasotzen dute
etxez etxeko
laguntza
zerbitzua

Udaleko Gizarte Zerbitzuen bulegoan (Bidebarrieta, 12) egin behar da eskaera. Gero, gizarte langileek aztertzen dute kasu bakoitza, eta eskatzailearekin batera adosten dute zenbat zerbitzu-ordu dagozkion. Gutxienez, astean 4 ordu izaten dira, eta gehienez 15.

Ordu horietan hiru eratako lanak egiten dira: 1. Etxeko lanak (otorduak prestatu, etxea garbitu, jakiak erosi, erropak

garbitu eta lisatu...); 2. Bere burua zaintzeko laguntza (ohetik jaikitzen, janzten eta jaten lagundu, botiken jarraipena egin, etxetik kanpoko gestioak egiten lagundu...); 3. Ekintza osagarriak (garbitasun orokorrak higiene arazo larria duten etxebizitzetan...).

Etxez etxeko zerbitzutik kanpo gelditzen dira pasioak egitea, profesionalak egin beharreko osasun jarraipena

egitea (injezioak, tentsioa, son-
dak...), edota etxeko konpon-
ketak egitea...

ORDAINKETA

Eskatzaileen ondasunak eta urteko diru-sarrerak hartzen dira kontuan, zerbitzuagatik ordaindu behar duen tarifa finkatzeko. Hala, ondasunetan (ohiko etxebizitza izan ezik) 38.561 eurotik gorako balioa duten eskatzaileek (etxean bizi den pertsona bakoitzeko) zerbitzuaren %100 ordaindu behar dute.

Bestela, eskatzaileen urteko diru-sarrerak hartzen dira kontuan, onuradunak ordaindu beharreko tarifa finkatzeko (Foru Aldundiaren taulen arabera). Hala, adibidez, gutxieneko pentsioa jasotzen duen pertsona batek kostuaren %15 ordaintzen du. Gainerakoa diputazioak (%45) eta udalak (%37) ordaintzen dute.

Iaz 29.248 zerbitzu ordu eskaini zituen udalak, 570.128 euroko kostuarekin; diputazioak 258 mila euro ordaindu zituen, udalak 210 mila, eta erabiltzaileek 100mila.

LAN BALDINTZAK HOBETU

Gaur egun 31 langilek dihardute etxez etxeko zerbitzuan lanean; horietatik 26 finkoak dira. Denak emakumezkoak dira, eta gehienak oñatiarrak.

Langileen lan baldintzak hobetzeko helburuarekin, udalak %18 igo du zerbitzu orduaren prezioa. Kontratu berriaren arabera, udalak 21,90 euro (+BEZ) ordaintzen dio Eulen-i zerbitzu orduko.



Etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileetako batzuk

Lan baldintza hobeak hitzartu dituzte

Oñatiko etxez-etxeko laguntza zerbitzuko langileek eta EULENek enpresa-hitzarmena adostu dute, udalaren bitartekaritzari esker. Herrialde mailako hitzarmen kolektiborik ez dagoenez, orain arte estatu mailako konbenioa aplikatzen zitzairen, eta enpresa-hitzarmen honekin, nabarmen hobetu dira etxez-etxeko langileen lan baldintzak

Hala, alde batetik urteko lan jarduna murriztu da. Orain arte 1.710 ordu ziren urtean, eta orain 1.665era jeitsi da, eta datorren urteko urtariletik aurrera 1.606 ordu izango dira (gaur egun baino 104 gutxiago urtean).

Soldatari dagokionez, %5eko igoera hitzartu dute aurtengorako, eta %5 gehiago 2017ko urtariletik aurrera. Gainera, langileek 60 euroko plus bat jasoko dute hilero (11 hilabetetan) joan-etorrien kontzeptuan.

Gainera, enpresak lan kontratu mugagabea egingo die langileen %75i, gutxienez. Bestalde, opor egun bat gehiago, eta beste hainbat hobekuntza ere hitzartu dituzte laneko baja eta lizentzia edo lan-baimenei dagokienez.

Hitzarmen berria urte hasieratik aplikatzen hastea nahi zuten langileek (ekainaren 1ean sartu da indarrean), baina gainerakoan gustura daude lortutakoarekin, eta eskertu egiten dute udal gobernu taldeak izan duen konpromisoa.

Izan ere, funtsezkoa izan da udalaren parte hartzea hitzarmen hau lortzeko. "Hobe izango zen herrialde mailako hitzarmen kolektibo bat adostea, baina horretarako dauden zailtasunak ikusita, Oñatiko langileentzako hitzarmen duin bat lortzea izan da gure helburua" adierazi digu Mikel Biain alkateak. "Hitzarmen eta lan baldintza berriek eragindako gailak aztertu eta onargarria zela ikusi ondoren, udalak bere gain hartzea onartu genuen. Uste dugu inportantea dela etxez etxeko zerbitzuko langileek lan hitzarmen duin bat lortzeko egin dugun ahalegina".



MAPFRE
Oñati

Partu kale, 5
20660 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 85

ARRI

Industria Hornidurak
Burdindegia

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

*Oñati Oñatiarron
zerbitzua!*

ETEO zaharra barne-eraberritzeko lanak lizitaziora atera ditu Udalak

Eltzia egitasmoan parte hartzen duten taldeentzako espazioak egokituko dira

Irailean hasiko dira lanak eta sei hilabetetan burutuko dituzte



ETEO zaharrean garatu nahi den Eltzia egitasmoa (sormena eta herrigintza lantzeko proiektu komunitarioa) errealitatea da, dagoeneko, baina erdizka. Herriko hainbat taldek bertan dihardute lanean, baina beste batzuk (Oñatz dantza taldea, esaterako) zain daude beraien beharretara egokitutako gunea moldatu arte, bertara joateko.

Gainera, Eltzia bezalako proiektu batean ardatz diren elkarlana eta komunitatea bezalako baloreak sustatzeko espazio amankomounak behar dira, talde ezberdinen eta komunitate osoaren arteko hartuemana sustatzeko.

Eta hori guztiori laster egi bihurtuko da, ETEOko eraikina barne-eraberritzeko lanak lizitaziora atera baititu Udalak. Izaskun Legaristi arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera, 419.564 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua dute lanek, eta sei hilabeteko epea burutzeko. Beraz, lanak irailean hasiko direnez, 2017ko otsailerako prest egongo da Eltzia eraikin berritua.

Gogoratu, aurretik herriko musika taldeentzako lokalak (Musika Eltzia) egokitu direla ETEOko sotoan. Guztira 11 lokal (10 txiki eta haundi bat) atondu ditu udalak, 267 mila euroko inbertsioa eginda.



LANEN DESKRIBAPENA

Orain egingo den aktuazioan ETEO zaharreko behe-oina eta lehenen bi solairuak berrituko dituzte. Hirugarren solairua eta honen gainean dauden beste bi solairu txikiak ez dira ikutuko.

Ondoko planoetan ikusten den moduan, behe-solairuan biltegiak egokituko dira (gaur egun taberna dagoen lekuan), zamalanak eroso egin ahal izateko aparkalekutik. Hauen ondoan hiru tailer (Ortuzabala, Txirrinka eta Joskintza) eta komunak joango dira. Behe-oin honetako ekialdeko hegalean Musika Eltzia dago.

Lehenengo solairuan egingo da aktuazio nagusia. Batetik, taberna eta Lagun-Lekuko nagusien topagunea egokituko dituzte, eta hauen ondoan Topaleku nagusia. Topaleku hau Eltzian dauden taldeentzako espazio komuna izango da, eta horregatik eraikinaren

bihotzean egongo da; 111m²-ko gunea zabal eta diafanoa izango da, klaustroaren parean.

Solairu berean garbikuntza gelak eta Gorputz Eltzia taldeentzako (Oñatz, Irazan, Txantxiki, Jabekuntza Eskola, Yoga...) aretoak egongo dira.

Bigarren solairuan, IZFEko bulegoen ondoan, eskulanetarako tailerrak (taila, pintura...) eta Sormen eltzeko (Ilunpetan, Bertso eskola...) nahiz Herri Mugimenduen eltzeko (Sare, Gurutze Gorria, Elkarzabal...) taldeentzako bulegoak, bilera gelak eta komunak egokituko dituzte.

Hirugarren solairutik areto nagusia (284m²) bakarrik erabailiko da, Eltzia proiekturako, baina dagoenetan utziko da.

SARRERAK ETA KONTROLAK

Kanpoko eskailerak igota, lehen solairuan dagoen atea izango da sarrera nagusia. Horregatik, ate honen aurrean dagoen terrazara modu irisgarrian iritsi ahal izateko arrapala bat egokituko da eraikinaren mendealdean, tabernara sartzeko ere erabiliko dena.


Behe solairuko biltegiek eta Musika Eltzia sarrera propioa izango dute. Bestalde, eraikineko barne zirkulaziorako kontrol txartel elektronikoak erabiliko dira, eta gunea bakoitzak bere kontrola izango du.

▲
Klaustroaren parean
Eltziako topaleku
nagusia eta Lagun
Leku elkartekoen
topagunea egokituko
dituzte.

**AURREKONTUA
ETEO ERAIKINA
BARNE
ERABERRITZEKO
LANEK 419.564
EUROKO
AURREKONTUA
DUTE**

BEHE-SOLAIRUA


BEHE-SOLAIRUA. Gaur egun taberna dagoen lekuan biltegiak eta tailer batzuk (Joskintza gela, Txirrinka eta Ortuzabala) egokituko dituzte, eta hauen ondoan, komunak eta dutexak. Ekialdeko hegala osoa Musika Eltzia hartzen du.

LEHEN SOLAIRUA

LEHEN-SOLAIRUA. Lehen solairuan taberna egongo da. Sarrera nagusitik ez ezik, aldamenean egokituko den sarrera irisgarritik (arrapala bidez) sartu ahal izango da bertara. Lagun Leku elkar-teen topagunea, eta Eltziaiko taldeen topaleku nagusia ere solairu honetan egongo dira, klaus-troaren parean. Ekialdeko hegalean Gorputz eltzeko taldeentzako (Oñatz, Txantxiki...) aretoak.

BIGARREN SOLAIRUA

BIGARREN-SOLAIRUA. IZFEren bulegoen ondoan, Sormen eltzeko (taila, pintura, zeramika, ikus-entzunezkoak...) eta Herri Mugimenduen eltzeko (Gurutze Gorria, Sare, Naturzaliak, Acesma, Zazpi Udaberri...) tailerrak, bulegoak, bilera-gelak eta komunak egokituko dituzte.

HIRUGARREN SOLAIRUA

HIRUGARREN-SOLAIRUA. Hirugarren solairutik areto nagusia bakarrik erabiliko da Eltzia proiekturako, baina dagoenetan utziko da. Gainerako gelak ez dira erabiliko, oraingoz.

Figuranteak behar dira

‘2057, ODISEA BAT KANPOSANTUAN’

laburmetraiaren bigarren zatia grabatzeko

Asteburu honetan (uztailak 9 eta 10) hasiko dira laburmetrai bat errodatzen Oñatin. Titulua ez dute oraindik jakitera eman, baina orain dela hamahiru urte grabatu zuten ‘2057, odisea bat kanposantuan’ filmaren bigarren zatia izango da.

Ia dena prest dago (aktoreak, atrezzoak, lokalizazioak, ekipamendu teknikoak...), baina figurante bezala agertzeko jendea behar dute oraindik; hainbat lagunek eman dute izena dagoeneko, baina lau sekuentzia grabatzeko jende gehiago behar dute (adin, sexu eta arraza desberdinetako pertsonak). Beraz, lerro hauen bitartez animatu egin nahi dugu jendea pelikulan parte hartzera figurante bezala, figurazioa@gmail.com helbidean izena emanda.

2057ko ODISEAREN PREKUELA

Orain dela 13 urte grabatu zen ‘2057 odisea bat kanposantuan’



Imanol Aranburu (Isam) eta Andoni Inza (Arthur Mann) izango dira protagonista nagusiak, duela hamahiru urte bezala

**80 AKTOREK
ETA 100 BAT
FIGURANTEK
PARTE
HARTUKO
DUTE
FILMEAN**

film laburrak Urbiako fondako bokata-lehiaketarako izena ematen duten *Arthur Mann* eta *Isam*-en istorioa kontatzen du. Entrenatzaileak (*Isam*) marihuana kanuto bat ematen dio *Arthur Mann*-i kaletik Urbiarako bidean gosea egiteko, eta horrek bidaia psikodelikoa izatea eragingo du.

Orain grabatuko den filma ordukoaren prekuela izango da; hau da, aurreko pelikulako pertsonaiek elkar nola ezagutu zuten, eta bokata-lehiaketara

2057
ODISEA BAT
KANPOSANTUAN



DEIALDIA

**FIGURANTE IZAN
NAHI DUTENENTZAT**

Uztailako lau asteburutan egingo dira grabazioak, eta laburmetraiko lau pasarte grabatzeko herritar askoren partehartzea behar da:

-UZTAILAK 9-10

Adin eta arraza ezberdinetako gizon eta emakumeak.

-UZTAILAK 16 eta 23

6-7 urte inguruko neska eta mutikoak.

-UZTAILAK 30-31

Adin eta arraza ezberdinetako gizon eta emakumeak.

Parte hartu nahi baduzue idatzi figurazioa@gmail.com helbidera. Animatu, aparta izango da!

OÑATI GARBIKETAK S.L.

Komunitate, garaje... garbiketa integrala:
Lurren kristalizatua, dekapatua
eta argizari ematea.

Oñakua 17 beheko eskalera / Tel: 732 733 712
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz
Inmobiliar gestioa

Tel: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahilari, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabiloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, del lezaguztu".

joan aurretik gertatzen zaien istorio bat kontatzen du.

Aktore eta protagonista nagusiak errepikatu egingo dira: Andoni Inza (*Arthur Mann*) eta Imanol Aranburu (*Isam*). Baina oraingoan 15 bat urte atzera egingo dute denboran, protagonistek 6-7 urte zuten garaira, eta kasu honetan Aetz Larrea, Etxahun Lizarralde eta Aretz Etxezarreta gaztetxoak izango dira protagonistak.

PROIEKTU HERRITARRA

Protagonista nagusiak aipatu ditugu, baina askoz ere jende gehiagok parte hartuko du film labur honetan; 80 bat aktore eta 100 bat figurante izango dira guztira. Horiez gain, pelikula aurrera ateratzeko antolatu diren lan talde ezberdinetan beste 50 bat pertsona ari dira lanean.

“Ahalik eta talde zabalena eta anitzena osatu nahi dugu” esan digute Kepa Aranburuk eta Xabi Elortzak, proiektuaren sustatzeileek; “herriko jende ezberdinen arteko elkarlana eta ezagutza bultzatzea da helburua, eta, batez ere, ondo pasatzea. Orain dela hamahiru urtekoa oso bizipen polita izan zen, eta aurtengoa ere halaxe izango da. Horregatik, animatu egin nahi dugu jendea proiektuan parte hartzea”.

Etxahun Lizarralde,
Aetz Larrea eta
Aretz Etxezarreta,
izango dira filmeko
protagonistak
hautzarroan



Film laburren
promoziorako
kamisetak, txapak eta
pegatinak ere atera
ditzute

ESTREINALDIA IRAILEAN

Dena ondo bidean, uztailean irudiak grabatu, abuztuan zehar muntatu eta irailerako prest egongo da filma. Irailaren 29an aurkeztuko dute txosna gunean.

Hala ere, irailaren 17an aurre-estrenaldia egingo dute Santa Ana aretoan. Sarrerak 5 euro balioko du, eta gastuei aurre egiteko modu bat izango da.

“Saiatu gara gauza gehienak doan lortzen, baina hainbat gauza (argi-fokoak, mikroak...) erosi edo alokatu egin beharko ditugu, eta gastu horiei aurre egiten lagunduko digu aurre-estrenaldiko sarrerak” azaldu digute Kepak eta Xabik.

Aurre-estrenaldiaren ostean Gaztelekuan ospatuko den festan (kontzertuak...) parte hartzeko balioko du sarrerak. Laister jarriko dituzte salgai. Adi beraz!

Udaleko kultura sailetik ere jasoko dute dirulaguntza bat, eta herriko zenbait enpresari ere luzatu diote dirulaguntza eskaera.

Bestalde, kamisetak, txapak eta pegatinak ere atera dituzte, baina dirua ateratzeko baino gehiago, promoziorako dira, herria girotu eta filma ikusteko irrika sortzeko.

LEHEN ZATIA IKUSTEKO



Orain dela hamahiru urte grabatu zuten film laburra ikusgai dago ondorengo helbidean:

<https://vimeo.com/165373302>

Oineko tratamendu osoa

KAILUAK ONDDOAK AZAZKALAK
PAPILOMAK GOGORGUNEAK

Neurrira egindako silikonak

Oineko miaketa, plantilak

Podóloga

Marta Frances Barbero
Colegiada Nº. B3B090334

Ebreko Zerbitzuak

644 136 419

Kale Zaharra Nº 5 beh. esk. OÑATI

martafrancespodologia@gmail.com

Zaldiek lagundutako *Coaching* ziurtagiria POTTOKALEKUn

EICCEk (Escuela Internacional de Coaching con Caballos) antolatuta, ikastaro trinkoa egingo da abuztuaren 1etik 28ra. Mondragon Unibertsitateak ere kolaboratzen du.



Abuztuan, gutako gehienok oporretan gauden bitartean, Jon Elorza zuzentzen duen Pottokaleku zentroan jardun betean ibiliko dira. Zaldiek lagundutako *Coaching* zertifikazioa eskuratzeko ikastaroa egingo da bertan, nazioarte mailako onarpena duena.

Zaldiek lagundutako *coaching* formazioan aitzindaria den *Equilibri* enpresa katalanak eta EICCEk (*Escuela Internacional de Coaching con Caballos*) antolatzen duten ikastaroa da. Ikasturtean zehar Bartzelonan ematen dute ikastaro hau, zortzi asteburutako modulotan banatuta (hilean bat), eta iaz hasi ziren Oñatiko Pottokaleku zentroan eskaintzen, formato trinkoan, 176 ikastorduak abuztuan bateratuta.

Bigarren urtea da ikastaro hau Pottokalekun egingo dena, eta iaz bezala, aurten ere izen-ematea ireki orduko bete ziren plaza guztiak (14). Deigarria da, gainera, ikasleetako lau

**ARGENTINA,
MEXIKO,
URUGUAI ETA
KOLONBIAKO
IKASLEAK
ETORRIKO
DIRA, BESTEAK
BESTE**

Hego Amerikatik (Argentina, Mexiko, Uruguai eta Kolonbia) datozela; gainerako ikasleak Kataluniatik, Mallorkatik eta Euskaditik datoz. Oso gustora dago Jon ikastaroak izan duen erantzunarekin. “Estatu osoan antolatzen den era honetako ikastaro bakarra da hau, eta

niretako ohore handia da Oñatin antolatzea, eta Hego Amerikako edo beste hainbat lekutako jendea etortzea hile osorako”.

Zaldiek lagundutako *coaching* formazioan aitzindariak diren profesionalek (Talia Soldevilla, Sergio Vidal, Viviane Launer eta Elena Porté) emango dute ikastaroa. Gainera, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateko *coaching* arloko formazioaren arduraduna den Eduardo Pascual ikerlari eta irakasleak ere saio magistral bat eskainiko du.

ZALDIAK ETA COACHING-a

“Zaldi bati begietara begiratzen diozunean, zeure burua ikusten duzu; zeure benetako izakera edo egoeraren islada”. Zaldiek lagundutako *coaching*-ean aditua den Talia Soldevillak esana da. Zaldiekiko elkarbizitzak erakusten du uneoro nola zauden emozionalki, eta hori oso lagungarria da



Jon Elorza da Pottokalekuko arduraduna

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

JON ELORZA / Pottokaleku

“Ohorea da maila honetako zertifikazio bat hemen egitea, eta Hego Amerikatik eta beste hainbat lekutatik etortzea jendea”

coaching-ean aplikatuz gero. Zaldiaren jarrera eta gorputz-lengoaia informazio iturri inportantea da *coach*-arentzat, eta hausnarketa sakonak egiteko bidea ematen du.

Zaldien bidezko *coaching*-a bizi-esperientzietan eta emozioetan oinarritutako ikaste prozesu bat da, helburu jakin batzuk lortzen laguntzen dizuna. Izan daiteke helburu pertsonal bat; adibidez, zure bizitza blokeatzen duten arazoak (autoestimu baxua, familia arazoak, erabaki inportanteak hartu beharra...) gainditzea, edo zure gaitasun pertsonalak indartzea. Edo izan daiteke talde mailako helburu bat lortzeko (talde-lana hobetzea...).

LAU URTEKO IBILBIDEA

Orain dela lau urte zabandu zuen Jon Elorzak Pottokaleku zentroa. *Coaching* formazioaz gain, ekinoterapia zerbitzua eta zaldien munduan murgiltzeko asteburuko egonaldiak ere eskaintzen ditu, besteak beste. Haurrei zuzendutadko barne-tegi erako udalekuak ere eskaintzen ditu uda partean.

Mondragon Unibertsitateak Txinan emango du LEINN gradua



Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateak hitzarmena sinatu du Shangaiko Nazioarteko Unibertsitatearekin, hurrengo ikasturtetik aurrera Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza Gradua (LEINN) Txinan emateko, *Mondragon Team Academy* (MTA) nazioarteko ekintzailetza sarearen bitartez.

2008an hasi zen Enpresagintza fakultatea LEINN gradua ematen. Irakasle-ikasle binomioan oinarritutako hezkuntza eredu tradizionala alde batera utzi, eta balio kooperatiboak oinarri hartuta, ikaskuntza aktiboaren bidez, eginez ikastea da gradu

honen ezaugarri nagusietako bat. Hala, LEINN ikasleek benetako enpresak sortzen dituzte ikaste prozesuan, eta fakturazioari lotutako helburuak bete behar dituzte.

Gainera LEINN graduan berebiziko garrantzia du nazioarteko esperientziak, eta, hala, ikasleek ekintzailetza-bidaia egiten dituzte Txina, India, Finlandia eta Silicon Valley-ra.

LEINN gradua amaitu duten ikasleen %94,7 lanean ari da; %57,8k ekiten jarraitzen du, eta %32k barne-ekintzailetzan dihardu.

EH Bildu izan da bozkatuena hauteskunde orokorretan

EH Bildu izan zen alderdi bozkatuena Oñatin ekainaren 26ko hauteskunde orokorretan, abenduan baino 368 bozka gutxiago jaso arren. Bigarren alderdia EAJ izan zen, 1.899 botorekin (abenduan baino 100 gutxiago). Igoerarik nabarmenena Podemos-Ahal Dugu alderdiak izan zuen; Ezker Batuarekin kolazioan, 1.296 boto eskuratu zituen, abenduan bi alderdiek lortutakoak baino 256 gehiago, Oñatiko hirugarren indar gisa sendotuz. Bestalde, PSE-EEk 370 bozka (+9) jaso zituen, PPk errepikatu egin zuen abenduko emaitza, 251 botorekin eta Ciudadanos-ek 18 gutxiago (45 jaso zituen).

Abstentzioak bi puntu eta erdi egin zuen gora abendukoarekin alderatuta.

%35,6ko parte hartzea Herri Galdeketa

Parte hartzeko aukera zuten 9.448 herritarretatik 3.371k (%35,64) eman zuten botoa ekainaren 5eko herri galdeketa (3.232 baiezkoak izan ziren, 100 ezezkoak, 10 zuriak eta 29 baliogabeak). Galdeketa antolatzaileak pozik agertu ziren jasotako erantzunarekin. Eskualde osoan (Aramaiio barne) %29,3koa izan zen batez besteko partehartzea, eta egun berean galdeketa egin zen 34 herri-etakoa berriz, %30ekoa. Gogoratu, Katalunian egin ziren galdeketa lehen olatualdian %27ko partehartze maila izan zuten. Erain Debagoienak eskerrak eman dizkie herri galdeketa aurrera ateratzeko lanean jardun duten ehunka herritarrei.

Deiane Unamuno Argazkiak / Fotografia

deiu_fotografia

666 20 54 62

deiu.fotografia@gmail.com

Ezkontzak

Jaunartzeak

Erreportalak

Albumak

Irudi-aholkularitza

Salo profesionalak, pertsonalak, haurrak

www.deianeunamuno.com

HONDARTZA ESKUBALOIA



Argazkia: Patxi

>> Aloña Mendiko eskubaloia sailaren 40. urteurrena ospatzeko, hondartzako eskubaloia txapelketa jokatu da Oñatiko plazan, uztailaren 23an

JOKO ARAUAK

- 4ko taldeek (atezaina eta 3 jokalar) jokatzen dute elkarren aurka. Erasoan atezaina eseri eta beste jokalar bat irteteko aukera dago.
- 10 minutuko bi zati jokatzen dira. Zati bakoitza irabazten duenak puntu bat lortzen du. Zati batean berdinketa badago, 'urrezko gola' jokatzen da, eta bi zatien ondoren berdinketa badago, 'shoot out' erako penalti jaurtiketen bidez erabakitzen da irabazlea.
- 'Fly' eginez sartutako golek bi puntu balio dute, eta baita penaltiz edo atezainak zuzenean sartutako golek ere.



Argazkia: Patxi

Foruen enparantza hondartza bihurtuta ikusiko dugu hilaren 23an. Aloña Mendik antolatuta hondartzako eskubaloia txapelketa jokatu da bertan.

40 urte betetzen ditu aurten Aloña Mendiko eskubaloia sailak, eta kontuan hartuz hasierako urteetan herriko plazan jokatzen zituela bere partiduak Aloñak, bertara bueltatzea erabaki dute, baina beste modalitate batean jokatuz, hondartzakoan.

Horretarako, 27x12 metroko jokaleku bat prestatuko dute plaza erdian (40 zentimetroko hondar geruza batekin).

GORAKA DOAN MODALITATEA

Azkarra, bizia eta ikusgarria da hondartzako eskubaloia,

▲ Gero eta indar handiagoa hartzen ari den modalitatea da hondartzako eskubaloia. Ezagunak dira Zarautz, Plentzia edo Basauriko txapelketak.

eta gero eta indar handiagoa hartzen ari da. Espainia nahiz Euskadiko federazioak era honetako txapelketa ofizialak antolatzen hasiak dira, eta Euskadin, esaterako, ezagunak dira Zarautz, Plentzia eta Basauriko txapelketak.

Oñatiko txapelketa irekia izango da, nahi duten herritar guztientzat. Adinaren arabera maila ezberdinak bereiztuko dira. Hondartza giroko musika ez da faltako eta, beraz, eskubaloia festa borobila izango da. Animo eta parte hartu!.

caravanas  oñate

• CALBARAGINTZA - CALDERERIA
Ondul zutaila, 25 • Tel.: 943 71 63 60

www.caravanasoñate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Ondul zutaila, 25 • Tel.: 943 78 85 65
Atzeke kale, 32 (erakusketa)



Garagardo azoka

UZTAILAK 14-17

Hamargarren edizioa du aurtan Aloña Mendiren garagardo azokak. Hilaren 14tik 17ra izango da, plazako jolaslekuan, ohi bezala. Ostegunean eta ostiralean 19:00etatik aurrera egongo da zabalik; larunbata eta igandean berri, eguerdian ere bai.

Urtero bezala, hamar bat garagardo mota dastatzeko aukera egongo da, eta jateko, ohiko saltxitxa, ukondo eta oilasko izterrak. Prezioak iazko berberak izango dira.

Aurtengo berritasuna pitxarretan egongo da, Aloña Mendiren insignia duten pitxarrak egongo baitira, nahi izanez gero, oroigarri gisa eramateko.

Ekitaldi berezi batzuk ere egongo dira karpan: atzeriko kantu inprobisatzaileen saioa ostiral iluntzean, eta monologo edo bakarrizketa saioa larunbat iluntzean. Eta sorpresaren bat edo beste ere izango omen da. Gontzea egin dago.



Asun Arregik eta Pedro Irizarrek 100urte bete dituzte

Joan berri zaigun ekainean bi herritarrek bete dituzte ehun urte. Gesaltzako Asun Arregik hilaren 1ean, eta Marteskuako Pedro Irizarrek 29an. Eta benetan azpimarratzekoa da, zein ondo dauden biak ala biak. Pedrok, adibidez, egunero bi kilometroko ibilaldia egiten du, eta lo egiteko ez du sekula pastillarik hartu, berak aitortu zigunez. Eta Asuni buruz, zer esanik ez; maiz ikusten dugu erosketak egiten herrigunean, eta bidaiaren bat egiteko aukera sortzen zaionean, ez du zalantzarik egiten, horixe baita bere benetako pasioa, bidaiatzea.

Azpilleta baserrian jaio eta Gesaltza erdikora ezkondu zen Asun, Carlos Arregirekin. Oso gazterik alargundu zen, lau seme-alabarekin, eta gogor egin behar izan zuen lan familia aurrera ateratzeko. Pedro, Zubillagako Marteskuan jaio zen. Artxubi baserriko Francisca Arabaolazarekin ezkondu (duela hiru urte alargundu zen) eta bost seme-alaba izan zituzten. Nicolas Errasti eta Pedro Goenagarekin batera zerrategia jarri zuen martxan Zubillagan, eta gero Betik palillo lantegia sortu zuten.

Halakoetan ohitura den moduan, Asunek eta Pedrok oroigarria eta lora sorta bana jaso zuten alkatearen eskutik, herritar guztien izenean.

Txernobilen aldeko sentsibilizazio ekitaldia

Ukrainako haurrak uda partean Oñatira ekartzen dituen Txernobilen Lagunak elkarteak sentsibilizazio ekitaldia antolatu du uztailaren 17rako. Informazio mahaia, musika eta puzgarriak egongo dira Foruen enparantzan. Bazkaria ere egongo da bertan, eta arratsaldean haurrentzako ikuskizuna.

Izarren behaketa / UZTAILAK 12

Ilatargi astronomia taldeak jarriko dituen teleskopioen bidez, izarrek behatzeko aukera egongo da (eguraldia lagun) uztailaren 12an, Foruen enparantza, gaueko 22:30etatik aurrera.

Bidebarrietako jaiak aurtan lehenengo aldiz / ABUZTUAK 26-28

Gazte jende asko bizi da Bidebarrieta kalean eta ingurukoetan, eta aurtan bertako jaiak ospatzen hasia erabaki dute. Abuztuko azken asteburuan izango dira. Egitaraua lotzen ari dira oraindik, baina aurreratu digute kontzertuak eta erromeriak plazako frontoian izango direla, eta, batez ere gazteei begirako egitaraua prestatu nahi dutela.

Duruko Eguna uztailaren 24an

Bi urtetik behin ospatzen den Duruko jaiak hilaren 24an izango da, bertako etxabolek antolatuta. Gazta dastaketa, herri kirolak, trikitilariak... jai giro bikaina egongo da.

ARRIZABALAGA
Aroztegia

Bereza Ind. 10
Tel. 943 75 14 64

PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 75 02 21

BILKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIKIN ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Larrañe buzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI

Baserriko egia: egurrezko labea

Olinpiar jokoetako berriemailea izango da Aitor biain

Gazte Olympic Team lehiaketa irabazi zuen kazetari oñatiarrak. **Basque Team**-eko euskal kirolarien jarraipena egingo du.



Rio de Janeiroko (Brasil) Joko Olinpikoen jarraipena egingo duen *Gazte Olympic Team* taldeko zortzi kazetarietako bat da Aitor Biain, 23 urteko oñatiarra.

Ikasketak amaitu berritan, **Gazteukerak** (Euskadiko Gazteen Ataria) eta **Basque Team**-ek deitutako lehiaketara aurkeztu zen iazko udazkenean. Idazlan bat edo bideo bat aurkeztu behar zuten 'Euskal selekzioak 10 domina eskuratu ditu' gaiaren inguruan. Aitorrek bularreko minbizia pasa duen emakumezko kirolari baten ikuspuntua islatu zuen, lortutako domina kopurua eralatibizatuz, eta zortzi aukeratuetakoa bat izan zen, 70 hautagaien artean.

Aitor eta beste hiru kazetari gazte abuztuaren 8tik 15era egongo dira Rion, Olinpiar Jokoen jarraipena egiten, eta beste laurak iraillean joango dira, Joko Paraolimpikoen berri ematera.

Basque Team-eko euskal kirolarien gertuko jarraipena egingo dute batez ere, baina kirol arlora mugatu barik, beraien bizi-esperientziak ere kontatuko dituzte testu edo

bideo-notizia bidez, www.gazteukera.blog.euskadi.eus atarian, eta sare sozialetan (*Instagram*, *Youtube*, *Flickr*...). Dagoeneko hasita daude artikuluak idazten Gaztesarea-k blogean.

ZIKA BIRUSA

Gatazka sozialak, politikoak, Zika birusa... Kezkatzeko moduko albisteak iritsi dira

azkenaldian Brasiletik, baina ez die aparteko garrantziarik eman nahi Aitorrek. "Zikatik babesteko neurriak hartuko ditugu, noski, baina ez nago kezkatuta. Azpiegitura batzuk amaitu gabe daudela ere esaten da, baina seguru nago kirol ekitaldi jendetsua eta ikusgarria izango dela. Kazetaria eta kirolzailea naizen aldetik, izugarrizko aukera da joko olinpikoak barrutik bizi ahal izatea,

eta esperientzia bete-betean bizitzeko ilusioarekin joango naiz".

Kazetaritzan lizentziaduna eta Nazioarteko Gaietan masterra da Aitor, eta *Berria* egunkarian dihardu bekadun gisa.



Gaztesarea atariko blogean eta sare sozialetan emango dute Rio-ko berri

Parketxea eta aterpetxearen kudeaketa lehiaketara

Arantzazuko parketxearen eta Gandiaga topaguneko aterpetxearen kudeaketa esleitzeko deialdi publikoa egin du Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioak. Bi zerbitzu hauek dinamizatu eta bisitariei arreta emateko lantaldea kontratatu nahi da, Lizitazioaren gehieneko prezioa 50.000 eurokoa izango da, urte bakoitzeko. Kontratua bi urterako izango da, beste bi urtez luzagarria. Uztailaren 19an bukatuko da proposamenak aurkezteko epea.

Mendi irteera bereziak

Donostiako kultur hiriburutzak antolatuta, Hego Euskal Herria 32 etapatan zeharkatuko duen '2016-Bidea' ekimenak Oñati inguruan egingo ditu hurrengo bi etapak: Legazpi-Arantzazu (uztailak 10) eta Arantzazu-Otzaurte (uztailak 17). Informazio gehiago <http://dss2016.eu> webgunean.

Bestalde, Arantzazuko Parketxeak eta Adiskideen elkarteak antolatuta 'Aloña ilunabarrean' mendi irteera egingo da uztailaren 16an.

ANE MERTZERIA

- Joateko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barrio, 54 Oñati

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Uda Oñatin

Turismo Bulegoan eta Arrikruzeko koban eskaintza zabala prestatu dute udarako

Heldu da uda! Egun luzeak, eguraldi ona, umeak oporretan... Garai ezin hobea familian edo lagunekin Oñatiko txoko desberdinak ezagutzeko. Hori dela eta, Turismo Bulegoan eta Arrikruzeko Koban ordutegia zabaltzeaz gain bisita bereziak ere antolatu dituzte.

Hala, Turismo Bulegotik herrigunea ezagutzeko bisita gidatuak egingo dira uztailean (asteburuetan) eta abuztuan (egunero). Goizez (13:00) eta arratsaldez (17:00) izango dira. Turismo bulegoan bertan eman behar da izena: 943783453 edo turismoa@onati.eus.

Bestalde, Arrikruz-Oñatiko Koban harrera-ordutegia zabaldu dute, egunero 9:30-etatik 19:00etara. Bisita gidatuak eskainiko dira '53 galeria' ikusteko. Hitzordua hartzeko arrikruz@onati.eus edo 943082000.

**HERRIGUNEA EZAGUTZEKO
BISITA GIDATUAK EGINGO
DIRA UZTAILEKO
ASTEBURUETAN ETA
ABUZTUAN EGUNERO.
ARRIKRUTZEKO KOBAKO
ORDUTEGIA ZABALDU
EGITEN DA (9:30-19:00)**

GEOAIZKORRI: GEOIBILBIDE GIDATUAK eta ESPELEOTXIKI

GEOIBILBIDEAK

Gure herriko ondare geologikoa ezagutzeko hiru gune geologiko interesgarrietara ibilbide gidatuak egingo dira.

GEOIBILBIDEA	EGUNA
Espeleo-Arrikruz	uztailak 17
Geoibilbidea Aitzuloko begira	abuztuak 14
Geoibilbidea Urbiara	irailak 24



Espeleotxiki ekintzetan parte hartzeko Arrikruz-Oñatiko kobekin harremanetan jarri behar da: 943082000 edo arrikruz@onati.eus. Gutxieneko adina: 6 urte.

ESPELEOTXIKI

Txikienentzako ekintza berezirik ere izango da. Abenturazaleek Arrikruz-Oñatiko kobetan ohiko bisitatik kanpo eta koban barrurago gertatzen diren eremuak ezagutzeko aukera izango dute. Bi ordu eta erdiko iraupena izaten du eta gutxieneko adina 6 urte da.

EGUNAK:

- Uztailak 13, 16, 20, 23, 27 eta 30
- Abuztuak 6 eta 20

4.055 ikasle pasa dira Arrikruz-Oñatiko kobatik

Urtez urte gero eta gehiago dira Arrikruz-Oñatiko kobetara hurbiltzen diren ikastetxeak. Bukatu berri den 2015/16 ikasturtean 4.055 ikasle pasa dira bertatik. Oñatiarrak ere izan dira tartean, gure herriko ondarea bertatik bertara ezagutzeko doako zerbitzua eskaintzen zaielarik. Gainerakoan, ikasle gehienak gipuzkoarrak izan diren arren, arabarren eta bizkaitarren presentzia ere goraka doa urtetik urtera, Arrikruz-Oñatiko kobak Euskal Herri osoan ezagutzera emanez.

**ARANBURU
ALTZARIAK**
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**
**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

**Sdistira**
estetika zentrua
irratetik aurrera,
**GIMNASIA
EMOZIONAL
INTEGRALA**
Informazio gehiago
hona...

San Lorenzo 4.bidea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

UDALEKO BATZORDEAK



Ingurumena eta Landa Garapena

Mikel Biain (EH Bildu), Aitor Gerenabarrena (teknikaria), Oier Irizar EH Bildu (batzordeko burua), eta Miren Elgarresta (EAJ)

Hamasei baserri-auzorekin, arreta berezia eskatzen du Landa-Garapena departamentuak. Ekainean, esaterako, auzo-taxi zerbitzua jarri du abian udalak, auzoetako bizilagunei garraio publikoa eskaintzeko helburuarekin. Landa eremuan ez ezik, ingurumen arloan dituzten proiektuen berri eman digu Oier Irizar batzordeko buruak.

AUZO-TAXI zerbitzua abian jarri berri duzue, auzoetako bizilagunei garraio publikoa eskaintzeko helburuarekin. Nolako erantzuna izan du? 108 eskaera izan ditugu guztira, baserri auzoetan errol-datutakoen %12. Positiboki baloratzen dugu erantzuna, izan ere zerbitzu berri bat da eta eskaera egindako auzotar asko nagusiak dira, beharbada herrigunera etortzeko familieren laguntza behar dutenak, eta beraz, zerbitzu honek pertsona hauen autonomia hobetuko du.

Orain zerbitzuak nola funtzionatzen duen ikusiko dugu urtea amaitu arte, eta zerbitzua egonkortzea erabakitzen bada, hobetzen joatea da xedea.

Baserri auzoak sendotu eta beraien arteko harremana indartzea da udalaren helburuetako bat. Horretarako auzo-alkateen Foroa sortu zenuten orain dela 5 urte.

Zein da bere egitekoa?

Alkatearen eta auzo-alkateen arteko eztabaida eta elkarren berri izateko organoa da. Berez konsultiboa eta ez-formala den arren, bertan hartutako erabakiak errespetatzeko konpromisoa hartu zuen Udalak, eta horrela jarraitzeko asmoa dugu. Gero proposamen horiek Batzordera datoz, "ofizialki" onartuak izateko.

Ildo berean, 'Auzotasuna' programa ere jarri zenuten abian aurreko agintaldian. Zertan datza?

Auzo bakoitzaren autonomia handitze aldera, diru-atal edo partida bat egokitzen zaie auzoei, beraiek erabaki dezaten diru hori zertan inbertitu. Jartzen den baldintza da, auzoa orokorrean hartuta onuragarria izango den zerbaitetan inbertitzea.

Baserri auzoetako bideak konpondu eta berritzeko

DATUA

726.385 euroko aurrekontua du (osoaren %3,65) Nekazaritza sailak

eskaera asko jasotzen ditu udalak. Nahikoa inbertitzen al da arlo horretan?

Oñatiko auzo-bide sareak 100 km-tik gora dauzka. Urtero 100.000 €-tik gora bideratzen dira. Sekula ez da nahikoa izaten; nolanahi, Oñatiko auzo-bideen egoera, Gipuzkoako beste udalerri batzuekoa biano hobea da.

Hala ere aurtun badaukagu kezka haundi bat, izan ere, Landa Garapena Elkartearen dirulaguntzak banatzeko baldintzak aldatu egin baitira (Aldunditik zentralizatuko dira). Baldintza berrien arabera, azalera handiko udalerriak (auzo-bide asko ditugunok) kaltetuak irtengo gara, 5 bide bakarrik lagunduko baitira diruz udalerri bakoitzeko. Beraz, haserre ez dakit, baina kezkatuta egoteko baditugu arrazoiak.

Nola ikusten duzu lehen sektorea Oñatin? Zein da

zuen helburua arlo honetan? Orokorrean lehen sektorea gainbeheran datorren arren, hainbat arlotan (ingurumena, elikadura, osasuna...) betetzen duen ezinbesteko papera kontutan izanda, gaur egungo jardueri eustea eta laguntzea da helburua.

Ahal den heinean, Udaletik lehen sektoreko jarduerak iraun dezaten, eta berriak martxan jartzeko esfortzua egin beharra daukagu. Ildo horretan, urtero 4 dirulaguntza lerro ematen dira: **1.** Ustia-lekuak modernizatzeko inbertsioetarako; **2.** Azokara etortzen diren postuendako; **3.** Nekazaritzako ura ordaintzeko; **4.** Putzu septikoak hustutzeko.

San Martingo baratza parkeak urtebete egingo du laster. Zein da orain arteko balorazioa?

San Martingo baratza parkean sortutako *Okitaño* elkarte oso aktiboa da. Etengabe ideia berriak gauzatzeko gogoz daude (konpostatzeko modu ezberdinak, lurra lantzeko metodologia ezberdinak...), inizatiba handia erakutsi dute, eta balorazioa oso ona da.

Lankidetza hitzarmena

OIER IRIZAR | Auzoak eta Ingurumena batzordeko burua

“Urtero 100.00€-tik gora bideratzen dira auzo-bideen sarea hobetzera. Ez da nahikoa, baina beste herri batzuetan baino hobeto gaude

sinatu berri dugu, baratzetako eguneroko jarduna beraiek kudeatu dezaten (ura, argi indarra, konponketa txikiak...). *Eltzia* proiektuan egin den bezala, ondare publikoaren erabiltzaile direnek horren kudeaketa bere gain hartzea oso aberasgarria dela uste dugu.

Basogintza arloan, bertako espezieak bultzatuko dituen politika berriaren aldeko apustua egin duzue. Zein dira egitasmoak?

Aurreko agintaldian Herri Onurako Mendien inguruko 10 printzipio onartu genituen aho batez. Printzipio hauek

udalaren jabetzapeko mendiari eragiten diete, ez jabetza pribatukoei.

Baso ustiaketa iraunkor baten aldeko printzipioak dira, kontserbazioa hobesten dutenak, egur ustiaketaren aldean. Eta printzipio horietan oinarrituz egin dugu Artia Herri Onurako Mendiaren plana. Aurtun, Araotz-Txiriki-killalekuko plana enkargatuko dugu eta Iturrigorri nahiz Aloñako planekin ere jarraitzen dugu lanean, aldundia eta herriko abeltzain elkartearekin elkarlanean.

Hiru urte beteko dira laster atez ateko bilketa sistema

jarri zenetik Oñatin. Zein da balorazioa? Aldaketaren bat egiteko asmorik ba al duzue? Atez atekoa martxan jarri zenetik hondakinen bereizketa maila %80tik gorakoa da.

Zerbitzua hobetzeko asmoz, urte hasieran aldaketa batzuk eman ziren. Hala, informazio bulegotik astean birritan egiten zen ontzien banaketa orain udaletxetik egiten da arratsaldero. Bestalde, Udaletik ere, kaleak garbiago mantentzeko asmoz hilabeteen birritan ikuskaritzak egiten dira eta jaso egiten dira galdutako eta apurtutako ontziak. Gainera, ontzietan eta esekilekuetan ere hobekuntzak egin izan dira, haizetik babestu eta ontziak apurtzea zailagoa izan dadin.

Datorren urtean lau urte beteko ditu atez ateko bilketa sistemak, eta hobekuntza prozesu partehartzaile bat egingo dugu, sistema ebaluatu, hobekuntzak proposatu eta eztabaidatzeko, beti ere emaitzak hobetzeko ikuspegiarekin.

Eredu energetiko jasangarria bultzatzea da udalaren beste helburuetako bat. Zein dira esku artean dituzuen egitasmoak?

Gai honetan aurrerapen teknologikoetara baldintzatuak gaude. Energia-iturri jasangarria izateaz gain, garbia izatea ere nahiko genuke. Ildo horretan, udaltzaingoan pellet bidezko berokuntza sistema jarri dugu. Mini-eoliko eta fotoboltaikoan aurrerapen teknologiko handiak egin dira, eta herrian proba piloturen bat egin nahiko genuke.

Tamalez, gaur egun hidrokarburoekin negozioa egiten duten multinazional erraldoiak dira teknologia horien patenteen jabe, eta teknologia horiek “bahituak” daude, bestela beraien negozioa amaituko bailitzateke. Eta oraindik okerragoa dena, fraktura hidraulikoa (*fracking*) bezalako teknika arriskutsu eta kutsakorrekin hidrokarburoen bizi-iraupena luzatu nahian ari dira.



MIREN ELGARRESTA/ EAJko ordezkaria Landa Garapena eta Ingurumen batzordean

“Auzo-alkateen foroan egotea eskatu du EAJk, baina, tamalez, alkateak ezezko borobila eman digu

‘Nekazaritza, abeltzaintza eta baso-ustiapen sektoreen potentzialtasuna bultzatuko dugu’ zioen EAJren hauteskunde programak.

Zer proposatzen du EAJk?

Proposatzen dugu erakundearen arteko politika sustatzea (udala/aldundia), eta baserritarren nahia errespetatuko duen elkarlan publiko-pribatua berreskuratzea. Ezinbestekoa da Lehen Sektorea balioestea, dinamizatzea eta erakargarria egitea. Ildo horretatik, formazio-programak jarri behar dira martxan, ustiapenen errendimendua hobetzen laguntzeko.

Gainera, Lehen Sektoreko ekintzaileek jarduera hasteko

laguntzak sustatu behar dira, eta, ildo horretatik, udal “leihatila bakarra” sortzea proposatu da. Halaber, garrantzitsua da belaunaldien arteko erreleboa bermatzeko programak garatzea, baina baserriko lana eta enpresako lana uztartzen dituzten herritarrak baztertu barik.

Bestalde, auzoetan sarterraztasuna hobetzeko, EAJren hauteskunde-programan LANDABUS (edo AUZO TAXI) zerbitzua proposatu zen, auzoen eta herrigunearen arteko lotura hobetzeko; baita teknologia berriak (IKTak) landa-auzoetan ezartzea ere, herrigunearekin parekatuaz joan

daitezen.

Auzo-alkateen foroa jarri zuen abian gobernu taldeak iazko agintaldian. Foro horretan egotea eskatu du EAJk, ezta?

Hala da. EAJren iritzian, garrantzitsua eta partaidetza dira udal-kudeaketaren zutabeak. Hori dela eta, oso argi dugu auzo-alkateen foroan parte hartu behar dugula landa-auzoetako bizilagunen beharrak eta auzo-alkateen kezakak zein diren jakiteko zuzenean. Foro horretan egotea dagokigu: udalbatzaren kideak gara, eta 2.500 herritar ordezkutzen ditugu. Tamalez, alkateak ezezko borobila eman dio orain

arte gu foro horretako partaide izateko eskaerari.

Hiru urte beteko dira laster atez ateko bilketa sistema abian jarri zenetik. Aldaketa beharreik ikusten al duzue?

EAJ alderdia hondakin gutxiago sortzea helburu duten politiken alde egon da beti, baita gaikako bilketa zorrotzaren alde ere (organikoa, papera, beira, errefusa...). Edukiontzia bidezko bilketa-sistemaren alde egin dugu. Esaterako, Arrasaten ederki egiaztatuta edukiontzia bidezko sistema dela eraginkorra: atez atekoa baino diru gutxiago kostatzen da, eta birziklatze-maila pare-parekoa da. Oso argi ikusten dugu Oñatin, Debagoieneko herri gehienetan bezalaxe, edukiontzia bidezko bilketa-sistema ezarri behar dela.

Gizarte zerbitzuetako bulegoa itxita egongo da asteazkenetan

Azkenaldian gora egin du nabarmen gizarte langileen lan kargak. Bulegora hurbiltzen diren herritarren kopurua %24 hazi da azken bi urteotan, eta, horrek atzerapena eragiten du espedienteen tramitazioan, besteak beste. Horreagatik, lan administratiboa arindu eta herritarrei zerbitzu hobea emateko asmoz, aurrerantzean bulegoa itxita egongo da asteazkenetan, barruko lanak egin ahal izateko. Gainerakoan, astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00etara egongo da zabalik bulegoa herritarrentzat. Asteazkenetan erantzungailuan utzi ahal izango dira abisuak.



Bidebarrieta 12an daude Gizarte Zerbitzuetako bulegoak

Administrarien lan poltsa osatzeko deialdia egin du Udalak

Udalaren beharretarako administrarien lan poltsa eratzeko deialdia egin du gobernu taldeak. Hamasei urte beteta eta Batxilerra edo LH-2 titulua (edo baliokidea) edukitzea eskatzen da. Euskara mailari dagokionez, 3. hizkuntz eskakizun maila egiaztatu beharko da.

Azterketa teoriko-praktiko bana eta test psikoteknikoa egin beharko dute hautagaiek, eta euskara proba ere bai, eskatzen den maila egiaztatzeko agiririk aurkeztu ez dutenek. (Euskara probak deialdi honetarako bakarrik balioko du).

Hautagaien lan eskarmen-tua, formazio osagarria eta informatikako (Word, Excell, Access) prestakuntza espezifikoa ere baloratuko da.

Uztailaren 11ra arteko epea dago izena emateko udal bulegoetan.

25 txantxi jasoko dute konposta egiten duten herritarrek



Etxeo hondakin organikoekin konposta egiten duten herriguneko bizilagunek zabor tasaren %25ari dagokion hobaria (25 txantxi) jasoko dute dirulaguntza modura. Hondakin organikoak auzokonposta guneetara edo norberak daukan konpostagailura eramaten dituzten herritarrek jasotzen dute dirulaguntza hau. Horretarako, kubo marroia ez ateratzeko konpromiso idatzia hartu zuten udalarekin. Gaur egun 513 dira hondakin organikoak modu horretan kudeatzen dituzten familiak, eta egiten duten ahaleginaren sari gisa 25 txantxi jasoko dutenak. Datozen egunetan jakinarazpena jasoko dute etxean, baina dagoeneko pasa daitezke udal bulegoetatik dirulaguntza jasotzera. Urte amaiera arteko epea dute txantxiak jaso eta gastatzeko.

'ELKARRI LAGUNDUZ' PROIEKTUA

Txantxiak, Oñatiko moneta sozialak, zirkulazioan jarraituko du beste urtebetez (2017ko ekainerarte) gutxienez. Hala erabaki dute Udalak eta proiektura atxikita dauden komertzioek. Horren harira, ekaineko Kontzejupetik aldizkariarekin batera banatu zen etxe guztietara, Txantxiak onartzen dituzten herriko establezimendu eta zerbitzuen zerrenda, eta zerrenda horri zerbitzu bat gehitu behar zaio: Eskolatxo dentista-Felix Ugarte (Lope Agirre kalea, 4 / 943 78 22 04).

Gazte lokalen dirulaguntzak abian jartzea eskatu du EAJk

Gazteen aisialdiko lokalek bete beharreko segurtasun, osasun eta intsonorizazio baldintzak finkatzen dituen ordenantza onartu zuen udalbatzak urte hasieran. Horren aurrean, EAJk bi urterako (40.000 € urteko) dirulaguntza programa bat martxan jartzea proposatu zuen, gazte lokalen egokitzapenak egiten laguntzeko eta lokalen jarraipena ahalbideratzeko. Eta, bide batez, gazteen eta bizilagunen arteko bizikidetza hobetzeko. Gobernu taldeak begi onez ikusi zuen proposamena eta 2016ko udal aurrekontuetan jasota dago 40.000 euroko diru atala. Orain, partida hori martxan jartzea eskatu dio EAJk gobernari, dirulaguntzak emateko baldintzak adostuta oposizioarekin eta, bereziki, gazteekin.

ESKAINITZA 90€ BEREZIA
Gurtia taldea

EZKONTZETAN Utze-Andi
2016-2017 urteetan
Informazio gehiago,
Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com

Araututako aparkalekuen ordenantza onartu du Udalak

- Denbora mugatuko aparkalekuak egokituko ditu erdiguneko lau eremutan.
- Gehienez ordubete aparkatu ahal izango da gune horietan, eta dohainik.
- Gainera, beste bi gune ere bereiztuko dira, inguruko bizilagunek aparkatzeko.

Herriguneko denda, ostatu eta zerbitzuetara errazago iritsi ahal izateko, denbora mugatuko edo errotazioko aparkalekuak egokituko ditu Udalak erdiguneko lau eremutan (ikus ondoko taula). Lau gune hauetan ordubetez aparkatu ahal izango da, gehienez, merkataritza-ordutegian; hau da, astelehenetik ostiralera 8:30-13:15 eta 16:00-20:30, eta larunbatetan 8:30-13:15. Egun eta ordu horietatik kanpora, denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango da gune horietan.

Denbora mugatuko guneetan aparkatzea dohainik izango da, baina bertan jarriko diren parkimetroetan txartela atera eta kotxean leku agirian jarri beharko da, gehienezko denbora ez dela gainditzen ziurtatzeko.

BIZILAGUNENTZAKO GUNEAK

Araututako aparkalekua izango duten beste bi gune ere bereiztuko ditu Udalak, baina gune hauetan inguruko bizilagunek bakarrik aparkatu ahal izango dute (ikus guneak ondoko taula). Bizilagunek denbora muga barik aparkatu ahal izango dute gune horietan, baina horretarako Guneo Biztanlearen txartela eskuratu beharko dute udaltxean, urteko tasa bat ordainduta.

UDAZKENERAKO MARTXAN

Araututako aparkalekuen ordenantza hasiera bateko izaeraz onartu du Udalak, eta orain hilabeteko epea zabalduko da alegazioak aurkeztu ahal izateko. Bienbitartean, parkimetroak erosteko prozedura abian da, eta ordenantzak zehazten dituen guneak seinalizatu ondoren, iraila bukaeran edo urrian sartuko da indarrean araututako aparkalekuen sistema berria.

DENBORA MUGATUKO GUNEAK

- 1. GUNEA:** Aita Madina kaleko aparkaleku guztiak (16)
- 2. GUNEA:** ONCEn kioskoa eta Maiatzak 1 plaza arteko aparkalekuak (8)
Batzoki atzealdeko aparkalekuak (4)
Portu kaleko 2-4 zenbakien arteko alde bietako aparkalekuak (13)
Alondiga eta Euskadiko Kutxa aurraldeko aparkalekuak (6)
- 3. GUNEA:** Zubibarri kale osoa, eta Ramon Irizar 2 zenbakiraino (22)
- 4. GUNEA:** Motxon kale osoko alde bietako aparkalekuak (26)

Funtzionamendua: Goiko lau gune hauetan gehienez ordubete aparkatu ahal izango da merkataritza-ordutegian. Aparkaldia dohainik izango da, baina gune horietan jarriko diren parkimetroetan ateratako txartela jarri beharko da kotxean leku agirian.

BIZILAGUNENTZAKO GUNEAK

- 1. GUNEA:** Aita Mortara kalea (26 aparkaleku) eta Zulueta dentistaren pareko aparkalekuak (7). Gune hau Kale Zaharra, San Anton eta Aita Madina kaleko bizilagunentzat izango da.
- 2. GUNEA:** Bidebarrieta kaleko 10-12 eta 26-28-30 pareko aparkalekuak, eta Errementari plaza aurreko alde bietakoak (15). Aparkaleku hauek, Bidebarrieta, Zubibarri, Motxon, Atzeko Kale eta Kale Barriako bizilagunentzat izango dira.

Funtzionamendua: Gune hauetan denbora muga barik aparkatu ahal izango dute bertako bizilagunek, baina horretarako, Guneo Biztanlearen txartela, eskuratu beharko dute udaltxean, eta dagokion tasa ordaindu.

Aurretik, komunikazio kanpaina bat egingo du udalak funtzionamenduari buruzko argibideak emateko.

EAJ AURKA

EAJren udal taldeak ordenantzaren aurka bozkatu zuen, behar beste landu gabe dagoela argudiatuta. Ordenantza mahai gaineen uztea eskatu zuten jeltzaleek. Herritar askoren eguneroko bizitzan izango duen eragin zuzena kontuan hartuz, datuetan oinarritutako azterketa sakonagoa egitea eskatu zuten: guneetako ibilgailu kopurua, biztanleekiko ratioa, guneak "inbaditzen"

dituzten ibilgiluen jatorria...

Denbora mugari dagokonez, ordubete gutxi dela iritzita, gehienezko aparkaldia bi ordutara igotzea eskatu du EAJk. Bestalde, Kale Barria, Atzeko Kale eta Portu inguruko bizilagunentzako gune bezela Motxon kalea egokiagoa da jeltzaleen ustez, Bidebarrieta baino.

Gobernu taldearen izenean Hirigintza batzordeko buru Irati Etxeberriak erantzun zuen, esanez, Oñatiko Mugikortasun Planean jasotako datuetan oinarrituta dagoela ordenantza, eta udaleko zerbitzu teknikoekin batera landu dela.



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala
ZUZENDARIA: Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA: Aratz Losada
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza
eta Udal Euskaltegia
INPRIMATEGIA: Gertu
Tirada: 5.500 ale
Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus
Publizitatea: publi@onati.eus
Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.: 943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Gure Esku Dago

Koldo Zumalde Barrena

Handiak egin ditu kuadrilla horrek: giza katea, estadioak, hitzal-diak... Josten aritu da, bidea urratzen: nekaezin, aseezin, agorrezin...

Maiatzaren 5ean referenduma antolatu zigun; kateak ez du etenik: jarri du pasioa, sortu ilusioa, eman lekzioa. Eutsi horrelaxe. Zorionak eta eskerrik asko.

Gazte-lokalen jarraipena bermatzea helburu

Marijo Etxegoien (EAJko zinegotzia)

Gaur egun, gazte-lokalak, aisialdirako eta lagunekin elkartzeko erreferentziatzeko gune bilakatu dira oñatiar gazte eta nerabeen artean. Lokal horiei esker, herriko gazteek beren autonomia, heldutasuna eta kudeaketa-gaitasuna garatu dituzte eta bizikidetzarako beren espazio propioak sortu dituzte. Baina gazte lokalak arautzen dituen ordenantza berriarekin zenbait zailtasunekin egin dute topo gazteek eta lokal jabeek; izan ere, segurtasun-, osasun- eta intsonorizazio-baldintza zehatzak bete behar dituzte orain.

Ordenantzak eskatzen dituen egokitzapen-, izapide- eta agiri-gastuei aurre egiteko, Oñatiko EAJ-PNVtik zera proposatu dugu: 2016. urteko aurrekontuetan bi urterako diru-laguntzen programa txertatzea. Horrela, urte bakoitzean 40.000 €-ko diru-partida ezarriko da gastu horiek diruz laguntzeko. Diru-laguntza horien bitartez, gazte-lokalen jarraipena bermatu nahi dugu; jakitun gara zenbait lokalen etorkizuna zalantzan dagoela edo egon daitekeela araudi berrira egokitzeko beharrezkoak diren lanek duten diru-kostuagatik. Guk nahi dugu gazteek aisialdirako espazioei (lokalak) eustea. Gainera, diru-laguntza horien bidez, lokalen etorkizuna bermatzen da, eta bizilagunen eta gazteen arteko elkarbizitza sustatzen da.

Esku artean dugun proposamen hau ez da asmo hutsa. Udal-gobernuaren oniritziarekin, diru-partida jaso da aurtengo aurrekontuetan, gazteei lokalen egokitzapen-lanen gastuekin laguntzeko. Aitzitik, udal-gobernuak ez du oraindik diru-laguntzen programa abian jarri. Horrexegatik eskatu dio EAJ alderdiak gobernuari lehenbailehen jar dezala martxan diru-laguntzen programa; baita laguntzok esleitzeko baldintzak lantzeko, bai

oposizioko taldearekin, bai gazteekin eta jabeekin ere. Bien bitartean, ezingo baitute inbertsio handiko egokitzapenik egin.

Diru-laguntzen programa ezarrita, gazte-lokalak arautegi berrira egokitu ahal izango dira, eta bizilagunekiko bizikidetzara erraztuko du. Beraz, zeren zain gaude?

Eskerrik asko, Oñati

Felipe Uriarte, Lierni Olmedo, Santi Ugarte eta Xabier Igartua (Oñatiko Gure Esku Dago taldearen izenean)

Ekaina joan da eta ekainarekin batera oñatiarren debagoiendarron eta Euskal Herriko beste zenbait bailara eta herritako herritarren historian bere tokitxo izango duen gertakaria hartu duen hilabetea.

Ekainaren 5ean euskal estatu independente bateko herritar izan nahi ote dugun erantzuteko aukera izan genuen, eta Oñatin 3400 lagun izan ginen ia nahi dugun hori adierazi genuenak. Galdetzeak gauza normala behar du, iritzia emateak bezalaxe, eta horixe egin genuen ekainaren 5ean, galdetu eta iritzia eman.

Oñatiarren %35 joan ziren Erain Debagoienak deitutako herri



ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Mocion Kalea 5 behea
Tel./Fax: 943 78 30 09 • Mugikorrak: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ETA GUZTIAN KOPIAKETAK

PERFORAK, LAMAK, LUBO FLOTTANTEAK, ARRIAK, PINTURAK, LANTZAK...



DISKONTRATU ETA MONTATZAILERAK

TERMINAL, BARRIOAK, HERRI-ALDARAKO GORRUPAK

OLAKUA 12 B 4.04 - 20098 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

galdeketa botoa ematera: batzuentzat Oñatik lor zezakeena baino kopuru txikiagoa, herriaren soziologia kontuan izanda; kopuru polita eta arrazoizkoa beste batzuentzat, galdeketa beraren izaera eta haren antolaketa baldintzak kontuan izanda. Batzuentzat eskas, besteentzat egoki; guretzat garrantzitsua da pauso bat gehiago izan dela duela hiru urte hasi genuen bide honetan.

3400 lagunek eman dugu iritzia, eta iritzia ematearekin batera esan dugu erabaki nahi dugula. Zalantzarik ez dugu, lanean jarraituz, Oñatin bertan eta Euskal Herrian barrena gero eta gehiago izango garela nahi dugun hori izateko modua hau dela sinistuta bide honetara batuko garenak. Eta ekainaren 5ekoa moduko ariketekin gehiago zabal batek, bat etorrita, erabaki egingo dugula adierazten dugunean, erabakia hartze hori saihestezin bilakatuko da. Horretara bidean urrats bat izan da hau, etorriko dira berriak Euskal Herriko beste hainbat herri eta bailaratan, eta Euskal Herri osorako galdeketa ere berandu baino lehen iritsi behar du.

Lerroon bitartez eskerrak eman nahi dizkizuegu, era batera edo bestera galdeketa gauzatzeko prozesuan eta galdeketa bertan parte hartu duzuen denoi. Oraingoan izan ez direnak erakartzea da gure erronka.

Eta azken gauza bat. Batetik eta bestetik jaso ditugun diru ekarpenei esker, herri galdeketa antolaketa galerarik gabe itxi ahal izan dugu, baina Gure Esku Dago dinamikak zuen guztion laguntzaren beharra izaten jarraitzen du, bere jarduna bideragarri egiteko eta etorkizuneko galdeketa antolaketarako, besteak beste. GEDeko bazkide izatera gonbidatzen zaitugu www.gureeskudago.eus; ondo baderitsozu, alde zuretik, mila esker!

3.637 € Ekuadorren alde

Oñatiko ekuadortarrek 3.637 euro batu zituzten, apirilaren 17an beraien sorteria astindu zuen lurrikara gogorak (7,8 Richter eskalan) eragindako kalteei aurre egiten laguntzeko asmoz, Oñatin antolatutako elkartasun ekintza ezberdinetan. Hala, Ekuadorreko produktuekin antolatutako azokan 2.540 € batu zituzten, eta bertan zozkatu zituzten bi saskiak Amaia Moyua eta Eli Urzelarentzat izan ziren. Bestalde, apirilaren 24an jokatu zen futbol txapelketan saldutako pintxoei esker 1.097 € bildu zituzten. Eskerrak eman nahi dizkiete modu batera edo bestera elkartasun ekintzetan parte hartu zuten herritar guztiei.



Eskerrik asko!

Jasone Elorza (ABIXARAN taldea)

Lotsak alde batera utzi eta elkarrekin Lkorrika egin eta ondo pasatzeko helburuarekin sortu genuen Abixaran taldea. Ordutik beti izan dugu buruan lasterketa herrikoia bat antolatzea. Iaz iritsi zitzaigun aukera. Antxintxiketan taldekoek esan ziguten Torreausoko lasterketa antolatzeari utzi behar ziotela eta ea guk hartuko genuen erreleboa. Zalantza asko izan genituen, baina azkenean aurrera egitea erabaki genuen. Azkeneko hilabeteetan gogor egin dugu lan. Hala ere, arduratuta iritsi ginen domekara. Etorriko al da jendea? Ondo irtengo al da? Beldur asko.

Domekan sentsazioak bestelakoak izan ziren. Uste baino jende gehiago etorri zen, eta oso ondo pozik amaitu genuen eguna. Lehenengo aldia izanda akatsen bat edo beste egingo genuen; horrela bada, barkamenak lerro haue-tatik. Torreausoko lasterketako antolatzaileen izenean eskerrak eman nahi dizkiegu lasterketan modu batera edo bestera parte hartu zuten guztiei. Eskerrik asko babesleei, Oñatiko Udalari, auzotarrei, lasterketa sortu zutenei, laguntzaileei, korrikalariei eta ikusleei. Zuek barik ezinezkoa izango litzateke hau guztia aurrera ateratzea.

IBURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



- Arazerixan -

IKASTURTE AMAIERA ETA UDAKO EKINTZAK

Kurtsoa amaituta balorazio oso positiboa egiten dugu Haur eta Gazteriako udal zerbitzu guztietatik. Eskerrak eman nahi dizuegu urte guztian zehar antolatutako ekintzetan parte hartu duzuen haur, gazte eta familia guztioi. Zerbitzu batzuei agur esan diegu, iraila arte behintzat, eta beste batzuei ongi etorria emango diegu uztailan. Besteak beste, amaiera polita izan dugu hainbat zerbitzuetan:

>> Txaloka ludoteka:

Ikasturtea borobiltzekoa, Zubillagako Suhiltzaileen parkean egon ginen ludotekako haur eta familiekin batera. 50 pertsona inguru izan ginen bisitan, giro ezin hobean.

>> Bertakotzeko haur eta gazteak:

Bertakotzeko haur eta gazteak Otxandiora joan ziren. Gazteak 3 egun egon ziren bertan eta hainbat ekintza egin zituzten. Besteak beste: Bilbora txangoa, Hontza Extrem abentura parkera... Eta abar luze bat. Haurrak berriz egun pasa itzela egin zuten Hontza Extremen. Hurrengo urtean berriz ikusiko garelakoan agurtzen gara! Ondo pasa oporrak!!!!

>> Aurrekontuekin Arazerixan...

Oñatiko haurrekin (3-8 urte) herriko aurrekontuak modu parte hartzailean landu ditugu. Guztira 4 saio egin ditugu Oñatiko haurrak udaletxera hurbildu eta bertako funtzionamendua ezagutu ostean hauekin, sormena erabiliz hauen iritzia jaso genituen. Ondoren haurrek beraien ideiak bozkatu eta udaletxera eraman genituen, zinegotzi eta alkateari haurren ideia eta premiak helaraziz. Guztira 150bat haur aritu dira prozesu osoan zehar parte hartzearen filosofia zabalduz.

Oñatiko Gaztelekuko Kuboan (8-12 urte) hiru hilabetez ibili gara parte-hartzeko prozesuan barna. Hasteko, Kuboko udaletxea sortu genuen: zinegotzi eta alkate hauek Kuboko erabiltzaileen proposamenak biltzeko ardura izan zuten eta behin proposamenak jasota, bozka asteburua antolatu genuen. Bertan, beraientzako garrantzitsuenak ziren proposamenak aukeratu behar zituzten. Hortik, lehentasun zerrenda bat atera genuen eta Udaletxeko plenora joan ginen bertako alkate eta zinegotziei emaitzak helaraztera. Proiektu honen balorazioa oso positiboa izan dela uste dugu. Izan ere, Kuboko neska mutikoek herrian hitza izateko aukera eta erabakitze esku-bidea dutela sentitu dute.



UZTAILEAN...

GAZTELEKUAN [15] Izeberg taldearen kontzertua (21:00) sarrera doan.

* Agendako beste deialdi guztiak 30. orrian aurkitu ditzakezu.



ZAILA AL DA EUSKERA?

Espainiako Errege Akademiak hau dio euskerari: 'Vascuence, lo que está tan confuso y oscuro que no se puede entender'.

'¡Qué difícil es el euskera!' entzun da eta entzuten da oraindik español eta kanpotar askoren ahoetatik. Bestaldekik, jaiotzez euskeradun garenok, "munduko zailenetakoa izango da" barneratu, sentitu eta esan izan dugu gaztetan. Gaur egun ez dugu hori hain garbi baieztatuko, baina egia ez den arrasto negatibo hori mantentzen da askoren burutan.

Baina ba al dago hizkuntza zailik? Euskera zaila ote da? Gaztelera eta beste hizkuntzak errazak al dira? Goazen egunerokotasuna aztertzeraz.

-Europako atzerritar edonork, (etorkin, entrenatzaile, kirolari, langile, unibertsitario) Euskal Herrira etortzen denean, **bere hizkuntza euskerarekin eta gaztelarekin konparatuz guztiz desberdina**

Bittor Madina



izan arren, ez du gaztelera zaila denik esango; euskera, ordea, bai. Pixka bat saiatzen bada, entzunaz, eta ez oso luzera, gai izango da gaztelera ulertzeko eta hitzegiteko. Horregaitik erderadun askok eta atzerritar gehienek hemen berehala gaztelera jotzen dute eta horrekin konformatzen dira.

Etorkin hori Euskaltegia ez bada joaten ikastera, euskera zaila dela esango du eta "egun on", "eskerrik asko", "kaixo" eta antzerako esalditxoak baino ez ditu adieraziko. Ez da euskeraren jabe izango. Euskeraren Alfabetatzeari ekin eta jarraitzen badio, ikasi eta aurrerapen onak eginda ere, botako du sarritan "**Banoa ikasten, baina zaila da euskera**".

Irlandan ere, berdintsu. **Ingelera, ospetsua dena, erraza da, bai; gaelikoa, bertako hizkuntza propioa izan arren, ospetsua ez delako, komunikaziorako ezinbestekoa ez delako eta beharrezkoa bihurtzen ez delako,**

orduan samurtasunetik urruti dago.

Hizkuntza baten zailtasunaren funtsezko arrazoia ez du hizkuntza berak. Euskerak ere ez. Balizko zailtasuna beste zerbaitzuek adierazten dute: **POLITIKOKI, SOZIALKI ETA KOMUNIKABIDEETAN DERRIGORTASUN EZAK eramaten du edozein hizkuntza zailtasunera.** Praktikan beharrezkoa ez zaiguna apurka-apurka ahultzen, kaxkartzen doa eta denboraren poderioz desagertzeko arriskuan. Geure barnetik, susmo hori sarritan kanporatzen dugu.

Soluziobidea? '**DERRIGORTASUNARI EMAN DIOTEN INPOSIZIO ETA LIBERTATE FALTSUEN IDEIAK ETA PRAKTIKAK** pikutara botatzea. Derrigortasuna "modu naturalean" ulertzea. Egunerok jatea, edatea, arnasa hartzea derrigortuta gauden bezalaxe: Naturaren inposizio naturalean. Euskera jakiteko eta berarekin bizitzeko (baita ere edozein hizkuntza) Legerian **ESKUBIDEAN** soilik baina **OBLIGAZIOA EZEAN** oinarritze bada, **orduan beti zailtasunean jarraituko du.** Españako Konstituzioak bihurtzen du zailgure hizkuntza. Euskera berak, ez!



WALESKA MAGER

ile apaindegia

- 20 urtetik beherakoentzat prezio bereziak
- Asteazken zehar prezio bereziak
- Larunbat arratsaldeetan, eta abuztuan zabalik
- Uztailetik irailera garbitu eta orraztu **15-18€**

 Waleska Mager Ilepaindegia
Errementari plaza, 1
Tel.: 943 03 91 70 | Mug.: 605 72 64 43




Denboraldi bikaina egiten ari da Xabier Murgiondo

> Gipuzkoako erlojupeko txapelketa irabazi du eta bigarren sailkatu da Euskadikoan eta Gipuzkoako Itzulian

Txapela kentzeko moduko denboraldia egiten ari da Xabier Murgiondo, Aloña Mendi-Ulma taldeko gazte mailako txirrindularia. Gipuzkoako erlojupeko txapelketa irabazi du eta bigarren sailkatu da Euskadikoan eta Gipuzkoako Itzulian, eta baita Gipuzkoako lineako txapelketan ere. Gainera, Debako eta Antzuolako lasterketak irabazi ditu, bigarren sailkatu da Zarautzen eta Oteizan, eta hirugarren Arantzazuko Igoeran, posturik onenak aipatzearen.

Gipuzkoako erlojupeko txapelketan prestigio handiko garaipena lortu zuen, ibilbideko errekorra (19:55) ezarriz. Suspense puntua ere izan zuen, segundo bakar baten aldea atera baitzion Mikel Azparren bigarren sailkatuari. Euskadiko txapelketan ere lan bikaina egin zuen Murgiondok, baina bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen Iñigo Elosegirengandik bi segundora.

Gipuzkoako Itzulian egindako lanak ere aipamen berezia merezi du. Atarikoa eta hiru etapa menditsu jokatu ostean, sailkapen orokorreko bigarren postuan sailkatu zen Murgiondo, irabazlearengandik 7 segundora, erregularitasun handia erakutsiz. Aurreneko bi etapatan ezin izan zuen tropelaren kontrola hautsi, eta azken etapa hil ala bizi irten zen karrera lehertzeko asmoz. “Erasoak bata bestearen ondoren jo ostean, Minas eta Lierni arteko maldetan aurkari zuzenak atzean uztea lortu nuen, baina ezin izan nuen gutxigatik harrapatu eguneko ihesaldian sartuta zihoan Alejandro Caro arabarra, eta berak irabazi zuen itzulia”.

Abuztuaren 3tik 6ra jokatu den Iruñeko Itzulia du orain begiz jota Murgiondok. “Lau etapako itzuli gogorra da, eta ea zerbait polita egiten gai naizen”. Irailean Oñatin jokatu

Eskuman, Xabier Murgiondo
Santipillauko aldapan gora
Gipuzkoako Klasikan. Behean,
Gipuzkoako Itzulian parte hartu
duen Aloña Mendi-Ulma taldea



den San Migel sarian ere saiaturiko da Murgiondo denboraldia borobiltzen, Afizionatu mailara igo aurreko azkenaurreko karreran.

TALDEAREN GARRANTZIA

Murgiondo bera ez ezik, Aloña Mendi-Ulma talde osoa ari da denboraldi ona egiten. Mikel Arregi eta Ekaitz

Txintxurreta nabarmendu dira gehien, baina gainerakoak ere fin ari dira talde-lanean. “Ikusten ez bada ere, oso inportantea da karrera kontrolatzeko taldekideek egiten duten lana, azken kilometroetara fresko iritsi ahal izateko” dio Murgiondok.

Gipuzkoako taldekako erlojupeko txapelketan hirugarren sailkatu zen Aloña Mendi-Ulma.

GARAZI EROSTARBE AZPITXAPELDUN

Gipuzkoa Caja Rural Bide Bide taldean ari den Garazi Erostarbe txirrindulari oñatiarrak ere albiste ona eman digu, bigarren sailkatu baita Euskadiko kadete mailako erlojupeko txapelketan.

Uztailaren 16an jokatu da Kantoikrit



Uztailaren 16an jokatu da Oñatiko V. Kantoikrit-a, pinoi finkodun bizikleten kriteriuma. Urtero bezala, herriguneko kaleetan barrena jokatu da, baina aurten aldaketa batzuk daude zirkuitoan. Plazan abiatu eta Lope Agirre kalean gora joango dira, ezkerrera biratu eta Portu kalean behera etortzeko. Gero San Anton kaleko Onako kantaleko adokin gunea gainditu ondoren, ezkerrera joko dute Aita Madina kalean, eta unibertistate etorbidean behera joango dira kuarteleko errotondaraino eta buelta plazara. Guztira 18 bira emango dizkiote 1,4km.-ko zirkuitoari. Gaueko 22:00etan hasiko da lasterketa.

Aloña Mendiko hiru igerilari Espainiako txapelketara

Ekainean zehar jokatu dira Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak maila ezberdinetan, eta Aloña Mendiko igerilariek emaitza onak lortu dituzte. Hala, Infantil mailan **Ainhoa Redínek** hiru domina eskuratu ditu Gipuzkoakoan: urrea 100 Bizkarrean (1:08:37), zilarra 50ean (00:31:80) eta brontzea 200ean (2:29:81). Uztailaren 28tik 30era Malagan jokatu den Espainiako txapelketan izango da Ainhoa. Bere taldekide **Josu Barrenak** brontzezko domina lortu zuen 50 Bizkarrean (00:31:83), eta taldeka ere brontzea eskuratu zuten 4x100 Librean **Mikel Zubia**, **Aitor Tatiegí**, **Manex Lazkanoiturburu** eta **Ander García de Cortazarrek**. Bestalde, Junior eta Absoluto mailan, **Nerea Diazek** hiru domina kolokatu zituen Euskadiko txapelketan: zilarra 50 Librean (00:28:46) eta brontzea 50 Bizkarrean (00:32:11) eta 100ean (1:08:25). Bere taldekide **Eric Ugartek** brontzea lortu zuen 50 Librean. Biak sailkatu dira uztailaren 13tik 17ra Gran Canarian jokatu den Espainiako txapelketarako



Mikel Ugarte Debako triatloian nagusi

Saltoki Trikideak taldeko Mikel Ugartek Debako triatloia irabazi zuen uztailaren 2an. Sprint distantziako proba (750m-25km-5,2km) 1:11:09-tan osatu zuen oñatiarrak. Pello Osorok (1:11:39) eta Iñaki Loinazek (1:12:15) osatu zuten podiuma. Absoluto mailan Ugartek lortzen duen lehen garai-pena izan da. Beste postu on batzuk ere lortu ditu aurret: Aritzalekun 3. sailkatu zen, Donostia eta Pasai Donibanen 4., eta Ondarroan 7.



IHANIRE URTEAGA, AKUATLOIAN NAGUSI

Oñati Triatloi Taldeko Ihanire Urteagak Plentziako Akuatloia irabazi zuen uztailaren 2an. Atletismoa eta igeriketa konbinatzen dituen modalitatea da akuatloia. Plentziakoa sprint distantzian jokatu zen (2,5km-1km-2,5km) eta 0:42:20an osatu zuen oñatiarrak. Ane Arana-gak (0:43:37) eta Esti Tejedak (0:46:37) osatu zuten podiuma. Bestalde, astebete lehenago Aritzalekun jokatu zen triatloian 3. sailkatu zen Urteaga.

Gordoa Lekeitiko trabesian nagusi

Xabier Gordoak emaitza bikainak lortu ditu azkenaldian. Batetik Lekeitiko itsas-zeharkaldia (1,6km) irabazi zuen (0:18:52) uztailaren 2an, eta hurrengo egunean 3. sailkatu zen Mutriku eta Deba artekoan (3km) 0:38:35 denborarekin. Bestalde ekainaren 26an Ortako lakuan (Italia) jokatu zen *Ocean-man* proban (14km) 6. sailkatu zen, 3:08:24 denborarekin, podiumetik minutu eta hamabira.



III. Patin Eguna, uztailaren 16an

Tatarraz Patin Elkarteak antolatuta, Oñatiko III. Patin Eguna ospatuko da hilaren 16an. Goizeko 9:45etarako jarri dute hitzordua plazan. Beroketa saio gidatua (10:00) egin ostean, 10:30etan irteera egingo dute bidegorrian zehar; ibilbide motza (Madalena) eta luzea (San Prudentzio) aukeran. Ordu berean, haurrentzako jolasak egongo dira Foruen enparantzan. Gero, 12:30etan patin erakustaldia plazan, eta amaitzeko, pintxo jana eta material zozketa.

Zubikoa kiroldegiko oharrak

2016/17 ikasturteko ur ekintzetan (igeriketa, aquagym...) izena emateko epea uztailaren 18tik 22ra eta irailaren 5etik 8ra zabalduko da.

UDA KANPAINA. Abuztuko txandako ekintzetan parte hartu ahal izateko izen-ematea uztailaren 22rarte luzatuko da.

UDAKO ORDUTEGIA. Abuztuan astelehenetik larunbatera (10:00-20:00) egongo da zabalik kiroldegia, eta igandeetan itxita egongo da. Bestalde, uztailaren 25a jai denez, kiroldegian jai egunetako ordutegia izango dute: 10:00-20:00.

Arnaiz eta Elkoroiribe irabazle Torreauson

Beñat Arnaiz (0:25:10) eta Eurne Elkoroiribe (0:31:08) izan dira azkarrenak Torreauson. Emakumezkoetan beste bi oñatiar igo ziren podiumera: Miren Josune Bikuña (0:31:57) eta Marisol Ramos (0:32:08), eta gizonezkoetan Miguel Angel Encina (0:25:19) eta Tasio Gomez (0:25:26). Guztira 117 korrikalarik osatu zuten ibilbidea, Abixaran taldeak lehen aldiz antolatutako lasterketan.



Bigarren urtez jarraian irabazi du Elkoroiribek



Lorea Igartua
Kolarearekin
taldeko kideekin

LOREA IGARTUA

“Askatasuna, pakea, indarra, alaitasuna, tristura... sentiarazten dit dantzak. Atsegin dut”



Lorea Igartua Guridi (Oñati, 1973) aspaldiko partez eskenatokian ikusteko aukera izan genuen ekainaren 17an. Donostiako Victoria Eugenia antzokian izan zen, Donostia-2016k antolatutako *Break a Leg!* proiektuaren barruan.

Desgaitasunen bat edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak ikusgarri egin eta kultur bizitzan parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea izan da *Break a Leg!* ekimenaren helburua. Bi astetan zehar laborategi eszeniko bat egin da Mireia Gabilondo aktorearen zuzendaritzapean, diziplina ezberdinak (dantza, antzerkia, kantua...) landuz, eta amaiera bezala, laborategian landutako hainbat pieza taularatu zituzten jendaurrean.

ZORTZI URTE DANTZAN

Lorea ez da berrria dantza munduan. Beti gustatu izan zaio gorputza mugitzea, baina txikitik ez zuen aukerarik izan Oñatin euskal dantzak egiteko aukera bakarrik zegoelako.

Baina duela zortzi urte Nahia Iparragirre aktore eta dantzaria ezagutu zuen, eta tratua egin zuen berarekin; Loreiak zeinu hizkuntza erakutsiko zion, eta Nahian dantza egiten. Hala, *Lorearen Nahia* izeneko ikuskizuna prestatu zuten, eta mundu berri bat ireki zitzaion Loreari. “Sentsazio bereziak sorrarazten dizkit dantzak: askatasuna, pakea, indarra, alaitasuna, tristura... Atsegin dut sentiarazten didana. Gainera, mugimendua lantzea lagungarria zait eguneroko bizitzarako”.

Arrazoi ezberdinak tarteko, banatu egin ziren Lorea eta Nahiaren bideak, baina Loreak lanean jarraitu zuen, hainbat ikastaro (dantzaterapia, bio-dantza, dantza inklusiboko tailerrak, klowna...) eginez.

Duela hiru urte *Kolarearekin* izeneko elkarte artistikoa sortu zuen, Xabier Madina, Alba Fernandez eta beste hainbat



lagunekin batera. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen dantza egiteko duten beharretik sortu zen *Kolorearekin*. Hamar bat laguneko talde iraunkor batek (erdiak gupil aulkidunak dira) osatzen du taldea, baina zabalik dago parte hartu nahi duen edonorentzat.

Urte hauetan tailer puntualak egin izan dituzte Katalunia eta Frantziako koreografo ezberdinekin, eta iaz Donostiako *d'Feria* arte eszenikoen erakustazokan parte hartu zuten, *Gorputza* izeneko ikuskizuna, Jordi Cortes koreografoarena.

Baina *Kolorearekin* elkartearen helburua, oraingoz, ez da emanaldiak pilatzea, baizik eta formazio gune iraunkor bat sendotzea. Zorionez, iazko udazkenaz geroztik, espazio egonkor bat dute Errenteriako *Niessen* kulturgunean, eta asteen bi lan saio egiten dituzte, Izaskun Lapaza irakaslea, Kukai dantza taldea eta Artaka arte eskola inklusiboko kideen (Alain eta Nahia) partaidetzarekin. “Oraingoz, formazioarekin jarraitu eta mugimenduen kalitatea hobetzea da helburua; gero etorriko da koreografia berriak prestatu eta jendaurrean erakusteko unea” azaldu digu Loreak.



Lorea Igartua eta Nahia Iparragirre (Artaka taldea), Donostian egin berri den *Break a leg!* ikuskizuneko une batean

ANTSIETATEA
ESTRESA
FIBROMIALGIA
DEPRESIOA

Psicología Zenitrea
ROSA RUEDA

Zubilaga Auzoa, 30

943 04 74 06
psicologia-rueda@cop.es
www.psicologiarosarueda.com

Udal liburutegiko udako ordutegia

EKAINAK 27-UZTAILAK 29

-Helduen liburutegia: 10:00-13:00 eta 16:30-20:00
-Haurren liburutegia: 10:00-13:30

ABUZTUAK 1-IRAILAK 2

-Helduen liburutegia: 9:30-13:30
Haurren liburutegia: itxita

Oharra: uztaileko arratsaldeetan eta abuztuaren zehar haurrek txoko berezi bat izango dute helduen liburutegian, pelikulak eta liburuak maileguan hartu ahal izateko.

Herri Eguneko artisau azokan parte hartzeko deialdia

Urriaren 1ean ospatuko den Herri Eguneko artisau azokan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago uztailaren 11ra arte. Guztira 30 artisaurentzako tokia egongo da, eta horietako 20 herritarren artean banatzeko gordeko dira. Lanen kalitatea eta lan prozesua azokan erakustea baloratuko da, besteak beste. Proposamenak kultur etxean aurkeztu behar dira.

JAI EGITARAUAREN AZALA. San Migel jaietako egitarauaren azaleko irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du udalak. Uztailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira lanak kultur etxean. www.onati.eus webgunean daude ikusgai oinariak.

A + B
argazkiak eta bideoak

www.itziarbastarrika.com
itziarbastarrika@gmail.com 905 753 968

AGENDA

07
UZTAILA
ABUZTUA
08
AGENDA

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



HAUR eta GAZTETXOAK

Udaleko Haur eta Gazteria sailak, Txaloka ludoteka eta Gaztelekuarekin batera, hainbat ekintza antolatu ditu uda parterako.

HAURRENTZAT (3-12 urte)

Uztailak 8: Ur jolasak;
Uztailak 13: Usakora;
Uztailak 15: Frontenis+Bizikleta irteera;
Uztailak 20-21: 5. mailakoen irteera (Paintball eta Donostia);
Uztailak 24: mendi irteera;
Uztailak 27: Usakora



GAZTETXOENTZAT

(12-17 urte)
Uztailak 10: Donostiara irteera
Uztailak 13: Arcachon-era irteera DBH-2koentzat.
Uztailak 21: Gamarrara irteera.
Uztailak 26-27: Saturrarana irteera (talde itxia).

RUPER ORDORIKA ARANTZAZUN

> UZTAILAK 10, 17:00 GANDIAGA TOPAGUNEAN

Donostiako kultur hiriburutzaren barruan, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldea 32 etapatan zeharkatuko duen '2016-BIDEA' ekimena burutzen ari da, eta uztailaren 10ean 16. etapa egingo da Legazpi eta Arantzazu artean. Ibilbidearen amaieran hainbat ekitaldi egingo dira parketxean: Jarondoko bordei buruzko azalpenak, paisaiaren interpretazioa (Ama Birjinaren aulkia), Gomiztegi Artzain Eskola eta gazta dastaketa, eta Arantzazuko basilikara bisita. Eta borobiltzeko Ruper Ordorikaren kantaldia (17:00-18:15) Gandiaga topagunean. Sarrera doan, lekua bete arte.

ANTZERKIA

> UZTAILAK 15 / 19:00

CIA NOGUSANO

Gazteria sailak antolatuta, Jon eta Paolo Donostiako klown taldearen saioa. Gazteleku aurrean. Doan.

> UZTAILAK 16 / 19:00

CIA LA KE TU ME HACES

Gazteria sailak antolatuta, *Cia la ke tu me haces* talde donostiarraren 'Org.amen' lan probokatzailea. Gazteleku aurrean. Doan.

> UZTAILAK 16 / 19:00

BAKARRIZKETA

Txikiren bakarrizketa Aloña Mendiren garagardo karpan, udal Gazteria sailaren eskutik.

ZINEA

> UZTAILAK 6 ETA 20

ZINEA GAZTETXEAN

Iluntzetan zine emanaldiak egongo dira gaztetxean.

> UZTAILAK 27 / 22:15

ZINEA AIRE LIBREAN

'Chef' filma ikusgai plazako frontoian. Doahinik. 'Kalean' gitarauaren barruan.

TAILERRAK

> UZTAILAK 5, 12 ETA 18

ZIRKO TAILERRA

Antixena gaztetxean.

> UZTAILAK 21

OGIA EGITEKO TAILERRA

Gaztetxean, arratsalde osoan.

AUZOLANA GAZTETXEAN

Uztaileko astelehenetan, bazkalostean, gaztetxea eta inguruak txukuntzeko.

BATUAK S.A.

MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • GÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11-15 • Faxa: 943 71 82 50



MUSIKA

> UZTAILAK 13 / 19:00

'SOKAK' IKUSKIZUNA.
MUSIKA ETA POESIA
Udaleko Kultura sailaren
'Kalean' programaren
barruan *LeKord* taldearen
'Sokak' ikuskizuna. Bi musi-
kari eta bi aktoreen eskutik
ibilbide poetiko-musikala,
herriko melodietatik abia-
tuz.. Lazarraga lorategian.

> UZTAILAK 20 / 19:00

ARCANA HAS SOUL
Udaleko Kultura sailaren 'Ka-
lean' programaren barruan
Saguntoko (Valentzia)
Arcana Has Soul taldearen
kontzertua. Atzeko Kalen.

> ABUZTUAK 2 / 19:00

ELEKTROTXARANGA
Herriko kaleetan zehar, udal
kultura sailak antolatuta.

'EUROPA BAT-BATEAN' OÑATIRA IRITSIKO DA

> UZTAILAK 15, 19:00 KALEZ KALE

Uztailaren 11tik 16ra
Donostian egingo den
'Europa bat-batean'
Nazioarteko Topaketaren
harira, Austria, Gales,
Kuba, Meziko, Zipre eta
Katalan herrietako kantu
inprobisatzaileek poteo
formatoko saioa eskainiko
dute Oñatin kalez kale.
Boga, Bizipoz eta Ona
tabernetan eta garagardo
azokan egingo dituzte
geldialdiak. Itzulpen
zerbitzua egongo da saioa
jarraitu ahal izateko

GOGOAN HARTZEKOAK ●●●●●●●●●●

LIZARGARATE EGUNA / Abuztuak 28

Abuztuaren 28an ospatuko da
Lizargarate Eguna, aurreko men-
diko Lizargarate gunean. Egun
osoan zehar trikiti doinuez gozat-
zeko aukera egongo da. Horrez
gain, hamarretakoa, herri kirolak,
bazkaria, erromeria eta beste
hainbat ekitaldi ere izango dira. Herritar guztiak daude gonbida-
tuta. Bazkarirako txartelak Izarraitz eta Arrano tabernetan eta Li-
zargaraten bertan egongo dira salgai.



AUZOETAKO JAIK

Trianako jaiak (uztailak 8-10), **San Lorentzo** (abuztuak 5-7) eta
Bidebarrieta (abuztuak 26-28)

LIBURUTEGIKO BERRIENAK

> **BIBLIOPORRAK GIDA** Udako oporrei begira Biblioporrak
gida argitaratu du udal liburutegiak, adinaren arabera
saillkatutako liburu eta DVD gomendagarriekin. Liburu
bakoitzari buruzko iruzkin labur bat era badakar, eta formato
elektronikoan eskuragarri daudenak ikus batez bereiztu dira.
Udal liburutegian eskura daiteke gida.



MERKATU TXIKIA

- > **Txabola** berriztua (50m²) salgai Araotzen. 652737731
- > **Akuarioa** (60 litrokoa) salgai 30 eurotan. Argiak ditu
eta filtroak ere bai. Interesatuak deitu 943783070.
- > **Etxebizitza** alokagai San Lorentzoko 33an (4. solairua).
3 logela, sukalde hornitua, 2 komun, ikasteko gela,
egongela handia eta 2 balkoi. Deitu: 663 760 233.
- > **Garaje** itxia alkilerrean Matinguan. Deitu: 943780777.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDUAGA **San Lorentzo 3, 943 78 21 16**

Uztailak 8, 9, 10, 16, 17, 19, 21, 27, 29, 30 eta 31. Abuztuak
2, 4, 8, 10, 12, 13, 14 eta 15.

IGARTUA **Kale Zaharra 1, 943 78 01 22**

Uztailak 11, 12 eta abuztuak 16, 18, 22, 24, 26, 27, 28 eta 30.

GARATE **Kale Barria 42, 943 78 05 58**

Uztailak 13, 14 eta abuztuak 17, 19, 20, 21, 23, 25, 29 eta 31.

JULDAIN **Kale Barria 6, 943 78 11 28**

Uztailak 15, 18, 22, 23, 24, 25, 26, 28. Abuztuak 1, 3, 5, 6, 7, 9, 11



COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

**ASEGURU
MOTA GUZTIAK
LANTZEN DITUGU**

Partikularrentzako:
Komunikabideak, etxebizitzak, zergak, osasuna,
bizitza, automobila, heriotza, pertsona-
bortzaren-planak, bida-asegurua, eta beste.

Negoioentzako:
Enpresa, Komertzioak, Automobila, eta beste.

Arantza zuzenean Arrieta Kalea, 9 - 20560 Oñati

☎ 943 025 006 ✉ oñati@coinbroker.eus
🌐 www.gipuzkoa.coinbroker.eus

HISTORIA TXATALAK

San Jose eta Santiagoren irudi berrituak



> Olabarrietako santutxuan, San kristobalen aldamenetan dauden bi irudi txikiak berritu egin ditu bertako ermandadeak. San Jose eta Santiago erromesaren irudiak dira, eta XVI. mende hasierakoak izan daitezkeela uste dute, Jose Ramon Arrazolak 'Historias de San Cristóbal de Olabarieta en Oñati' liburuan azaltzen duen moduan. Badirudi, bi irudi hauek Olabartako San Kristobal ermitan (1813-1817 artean desagertua) egon zirela lehenengo, eta 1781 aldera ekarri zituztela santutxura.

Pipiak erasanda zeuden bi irudiak, eta, beraz, xilofagoen kontrako tratamendua eman diete, eta, bide batez, polikromia kontsolidatu dute. Gainera, San Josek sorbaldan daukan Jesus haurraren jantzia ere berritu dute.

Olabarrietako bidegorria egin denetik, jende asko pasatzen da orain santutxuaren aurrealdetik, eta aukera dute orain berritutako irudiak ikusteko.

Murgia

> Jerardo Elortza

Badu Murgia auzoak ere, alderdi askotatik begirata, azpimarratzekorik: historia, parajea bera, ekonomia eta beste hainbat jakingarri. Erdi Aroan, Uribarri auzoarekin batera, oinaztarren bandoaren gotorlekua izan omen zen, arranoena alegia; ikuspegi paregabeak ditu Aloña, Udalaiz, Anboto eta beste bista eder askorekin; eta ohi-ko nekazaritzaz gain, beste alor batzuek ere garrantzia handia izan dute hemen: Kataberako meategiek, mugakide den Olabarrietako eta beste toki batzuetako teileriek, haizpeko ikazkintzak, errotek eta txakolin-mahastiek, bertako artzainen joan-etorriak eta lanak ahaztu barik.

Dena den, gaurkoan beste esparru batzuei ere erreparatuko diegu. Adibidez, Oñatiko deitura ezagun askok Murgian izan dezakete euren jatorria; horien artean Umerez, Murguzur, Maiztegi eta Biain ditugu ugariak gaur egun, baina izan dira historian zehar auzo honetako baserrietatik eratorritako beste abizen batzuk ere: Eizagirre/Izagirre (Eiziar), Azkarreta, Arretxe, Estenaga, Bustinzurieta, Jauregi, Elorriaga edota Murgialdai, esaterako.

Izenekin ari garela, adierazi behar da Murgian (txantxikua-

**Oñatiko
abizen askok
Murgia
auzoan dute
euren jatorria**

AUZORIK AUZO

rron Murgixan), beste toki askotan lege, aldaketak eta bitxikeriak gertatu izan direla: orain Eiziar (Eizagirre) Goikua izendatzen den baserria lehenago are gorago kokatzen zen, Aixierikoa Eizagirre Erdikoa deitzen zen, eta Kamelakoa Eizagirre Barrena; Juanikogarrena baserria Biain Herederokoa moduan azaltzen zaigu XIX. mendera arte, eta han Juaniko Agirre bat bizi izan zelako hartu zuen oraingo izena; esan, azkenik, Murgiako Arretxe baserri-
tik Auzotxora (oraingo Martzelino Zelaia kalera) joandako Pope zeritzan baten bitartez sortu zela *Poparretxe*, eta ez Paparretxe, familia horren goitzen zaharra.

Lehenago Maalan ere beste ermita bat egon zen arren, bakarra eza gutzen dugu orain Murgian: Asentzio. Honek ere aldaketa bat baino gehiago izan du gizalditan zehar. Lekuz aldatu zuten 1906an, Murgialdai baserri ondotik orain aurkitzen den gaintxora, Ladislao Sagastizabal, Bixain baserriko semea, Oñatiko San Migel parrokiako erretore zela eta auzotar batzuen iritzia-
ren kontra. Baseliza hau San Andres apostoluari eskainia zen hasieran eta oraingo adbokazioa (Asentzio) XVII. mendearen hondar aldean hartu zuen. Alabaina, unibertsitate zaharreko obretan jardun zuen Borgoñako Felipe artistak 1555 inguruan San Andresen omenez zizelkatutako erretaula errenazentista polita dauka oraindik, baita lan hori enkar-gatu eta ordaindu zion Murgialdai-ko Andresen eta bere emaztearen irudiak ere, bi borobiletan sartuta.



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 03 87 • email: inkorta@telefonetelone.es



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

Txiste kontari

Fan ei zan behin gizon bat Aurelioren barberixara ulia mozteko asmotan eta, txandan egon eta gero jarlekuan jarri eta, barberuak preguntatu otsan:

- Zela gura dozu, ba, ulia mozteia?

Eta bezeruak erantzun:

- Isiltasun osuan!

Harek jo txan azaak, harek, gure Aureliori!



Lotu honeik berbook euren esanguriakin

ALTZARIXAK

1. Gari-kutxa oso haundixa.
2. Ardixai jatekoa izteko lekua.
3. (Ogi-)oria egitteko ebalten zan kajue berezixa, jeneralian arka gaiñian egoten zana.
4. Baserriko sukaldietan hormari erantsitta egoten zan jarleku luzia, jatorduetan jeisten zana.
5. Banketa hankamotza, bizkarleku bagia.
6. Arkiaren kajoia edo tiraderia.
7. Platerak eta eranontzixak eukitteko altzarixa.
8. Jarleku arrunta bere bizkarlekuarekin.
9. Abereai aliak jaten emuteko zurezko askatzua.

- a. Eromahai, -xa
- b. Silla, -ia
- c. Kamela, -ia
- d. Artesi, -xa
- e. Arka-kurtxetilla, -ia
- f. Arka, -ia
- g. Txiseilu, -a
- h. Arasa, -ia
- i. Aulki, -xa

Goguan hartzekuak

-TZAR, -KOTE, -TO atzizki haundigarrixak

-TZAR da gure artian gehixen ebalten dan atziki haundigarrixak:

Hau da mutiltzarra!

Hau da gizontzarra egin xakuna!

Hor kanpuan egon dan bittartian a zelako neskatzarra egin dan gure Edurne!

Hori dok, hori, andratzarra!

Ikaragarriko sukaldetzarra dako etxe honek.

Harek xakuan bizkartzarra, gerritzarra, eskutzarra, lepotzarra, burutzarra, ipurditzarra!

-KOTE be ebalten da, gutxiago biharbada: gizonkotia, mutikotia, neskakillakotia ...

-TO ezezagunena dala esan geike: Zelako gizatua!

Holakuak be entzuten dira haundittasuna adierazoteko:

Horrek xakok beso-zuztarrak! Harek xakuan berna-zuztarrak!

Hutsunaak bete ahalerazko eta baldintzazko adizkixak ebalixaz

- Zuk zeozer egin (1) kotxe hau itxuraketako?
- Kotxe hau ezin (2) konpondu gurata be.
- Orduan zer egin (3)....., txatarretara bota?
- Txatarretara bota aurretik jarri (4)..... harremanetan kotxe zaharren erosleren batekin preguntaitteko zenbat emungo (5)..... kotxiagatik.
- Hutsa emungo dostai, eta hori baiño urtenbide hobarik ezin ba (6)..... topau, neu hasiko naiz kotxia konponketan.

EUSKERAZ EGOI

Neike, heike,
zeike...

ahalerazko
aditz paradigmia
ezkutauaz

Neike, heike, zeike, geike ... :
fan zeike, egin zeike ... eta abar. Aditz forma honeik ezkutauaz doiazela esan leike eta horrein ordeztu ahal izan lokuziñua nagusittuaz doiala: gaurko egunian *ahal da fan, *ahal da egin edo *ahal naiz geratu moduko formak besterik ezta entzuten.

Ikusi degigun zela ebalten diran:

— Datorren domekan nora fan geike eguna pasaittera?

— Nora fan geiken? Leku polit askuak dagoz, ba, urrin fan barik. Gura badozue, kostaldera fan geike, Zumaia edo Zarautz aldera.

— Baiña horretarako goiz mobiu biharko gara ze kostako herri horreittan ezin leike edozein ordutan aparkau.

— Ez euki horren ardurarik, goizari heldu ezkerdo edozein lekutan aparkauko dogu-ta.

— Ederki, orduan goizeko zortzietan alkatuko gara etxe aurrian.

— Bai, konforme, han izan-go gara!

-Hutsunaak bete ahalerazko eta baldintzazko adizkixak ebalixaz

-ALTZARIXAK
1f, 2d, 3a, 4g, 5i, 6e, 7h, 8b, 9c

ERANTZUNAK



Larrañako jaixak San Lorentzotan

Majo aldatu da Olakua, San Lorentzo eta Ugarkalde inguruetakoa itxuria azkenengo berrogeta hamar urte honeittan. Oñatien hirutik batek izango dau orain hor bere bizilekua. Baiña Larrañak, baserri-giroko auzua zanian be, nortasun haundia eukan eta **etziran makalak izaten hango jaixak San Lorentzotan**. Herri-kasko klasikotik hain hurrian egonda, eta agustuan jentia etzala artian kanpora faten kontuan izanik, **normala zan horko erromerixak sekulako tiria eukittia txantxukarrron artian**.

Horregatik, orduko San Lorentzuak ikaragarri estimaitten zittuain herrittarrak. **Bi eguneko programia** egoten zan: santuaren egunekua, agustuaren 10ian, eta bixamunekua. **Trafiko gutxi eguen urtietan, kamiño kontran egitten ziran erromerixak, eta gehiketari hasi zanian**, barrurago jarten euen musika-kioskua, **Olako errota-torriaren eta Mugartzaneko zerriaren artian**. **Soiñujoliak** Osintxuko **Azkarreta anaiak** izan ziran urte dezentetan, baiña gerora beste musiko asko ezaguttu gittuan fiesta horreitan. Goitik behera eta ezkerretik eskumara horra gazte larrañatarron izen-abizenak:

Goiko illaran zutik: X. X., Olako Matio Kortabarriaren morroia; Juan Mari Guridi Zumalde, *Uriko Azpikua*; Nikolas Zubia Markuleta, *Olako errotakua*; Jose Mari Iñurritegi Urtzelai, *Olako Karlosena*; [X.] Zabaleta, Urruxolako *Olatekua*, Olako Matio-nian morroi; Jexus Guridi Zumalde, *Uriko Azpikua*; Joxe Luis Plazaola Goronaeta, *Mendiko kalekua*, Irazabal Haundikuan morroi; Patxi Bikuña Altube, *Erbiña* baserrikua; Kandido Zubia Markuleta, *Olako errotakua*; atzeratxuago, Pedro Elkoroiribe Zabaleta, *San Lorentzo* baserrikua; Justo Igartua Elortza, *Elordui Goikua*; honen atzian, Jexus Markuleta Azurmendi, *Aramai-xuena*; eta atzerago oraindiodiok, Anjel Anduaga Zelaia, *Azkoitixena*; aurrerago Benito Agirre Olalde, *Errekalde* baserrikua; Benitoren ostian txapelarekin Joxe Bikuña Ugarte, *Erbiña* baserrikua; gero Kornelio Markuleta Azurmendi, *Aramai-xuena*; Pedro Aias-tui Bikuña, *Joxienua*; goiko bazterrian eskuman, Bixente Markuleta Markuleta, *Danbolingua*; Pedro Aiaituiren aurrekua, Eduardo Urtzelai Aiaitu, *Uriko Garaikua*; eta honen ondokua, X. X.

Behian jarritta: Joxe Mari Idigoras Guridi, *Antonena*; Joxe Elkoroiribe Zabaleta, *San Lorentzo* baserrikua; Nikolas Altube Moia, *Alejona*; Felix Aldanondo Elkorobarrutia, *Zeziñena*; honen atzian, Julian Aiaitu Bikuña, *Joxienua*; Eduardo Zubiagirre Uriarte, *Pullangua*; soiñujolia izan barik soiñuarekin, Julian Iartza Egaña, *Torretxebarrikua*; honen atzian, Iñazio Guridi Zumalde, *Uriko Azpikua*; hurrengua be etzan musikua baiña saxofoiarekin, Pedro Ugarte, *Kortakua*, morroi Leibarren; horren onduan goratxuago, Emilio Anduaga Markuleta, *Auzotxoko Xokeruena*, Korta baserrixan morroi; eta honen atzian, Pedro Agirre Azkarreta, *Lekunbarri* auzokua, baiña Erbiña Bestekuan bizi zana.

Argazkiza **Patxi Elortza** erretratista oñatiarrak **1944-1945 inguruan** ataratakua ei da, eta atzian ikusten diran baserrixak 1970ko hamarkada aldian bota ziran San Lorentzo auzua egitteko.

J. E.

Fotografia Erbiñeko Bikuña anaiak eukain eta guri Joseba Iartzaren bittartez ailegau xaku. Argibiderik gehixenak, berriz, Joxe, Jexus eta Reyes Bikuña anaiak zor dostegu. Milla esker danoiri!



PREZIO ONENAK

San Martin
Lehenengo fasea prest!

italde
Ramón Irizer Kalea, 2
T 943 78 27 07
www.italde.com

Oñati gestio heziketa

MGEP
Mondragoneko Gestio Heziketa eta Enpresa Modetrendak

Matrikula

uztailaren 11tik 15era

Eskaintza akademikoa

2016-2017

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
• Administrazioa eta Finantzak • Zuzendaritza Idazkaritza • Saimenta Rudeaketa • Nazioarteko Merkataritza	• Sistema Elektroteknikoak eta Automatizazioa • Automatizazioa eta Robotika Industriala • Sareko Informatika Sistemari Administrazioa • Fabrikazio mekanikoko Diseinua • Fabrikazio mekanikoko Produktzioaren Programazioa • Mekatronika Industriala
www.mondragon.edu/ogh info.egresagintza@mondragon.edu 943 71 80 09	www.mondragon.edu/gmh gmh.mgep@mondragon.edu 943 71 21 91

GOI
MAILAKO
HEZIKETA
ZIKLOAK









KENDU ITZAZU ZURE ETXEKO OZTOPOAK

LEHEN



ORAIN



LEHEN



ORAIN



OÑATIKO ETXEBIZITZA EZBERDINETAN EGINDAKO LANAK

Bainuontziaren ordeztutxa-platera

Egun gutxitan egingo dizugu obra guztia

Bainugela osoaren erreforma

Gremio guztiak koordinatuko dizkizugu

GURE BEZEEROEN SEGURTASUNAK ETA EROSOTASUNAK KEZKATZEN GAITU

- > Iturgintzako material salmenta
- > Komun eta sukaldeetako erreformak
- > Gas naturala, butanoa, propanoa, gasoila
- > Kalefazioa eta aire girotua
- > Diseinua, dekorazioa eta opariak
- > Obren koordinazioa

fontanería y calefacción

BELOKI

Irailetik aurrera, denda eraberritua!



www.belokionline.com

Okendo 2, behea
Tel.: 943 72 29 04
ZUMARRAGA

Bakardadeko Ama 11
Tel.: 678 46 54 58
OÑATI